

Patata Operazioa igandean, Urdiain eta Satrustegi artean



Sakanerria >> 6

Irurtzunen San Martin festek asteburua eta asteazkena hartuko dute. Gaur eta bihar, musika nagusi izanen da; etzi, artisautza



Sakanerria >> 6

Prestakuntza Handiko Trenaren tramitazioa abian

>>5



SPE aurrera eramateko gobernuari inplikazioa eskatu diote alkateek

Baldintzen eta ekonomia baliabideen inguruan adosteko bildu nahi dute

>>3

Euskaldunen errolda egingen du Altsasuko Udalak

Hala nahi dutenek udalarekin harremanak euskaraz izateko aukera izanen dute

>>9

Txakurren pozoitzeengatik gizon bat atxilotu dute

Huellas de Altsasuk lasaitasunerako deia egin du

>>8

Arkeologoen arrastoa

>>6-7



Gastronomia, lakuntzarrak elkar ezagutzeko aitzakia

>>9



Alex Mariñelarenak motoziklismoari agur

>>11



Koldo Arnanz Condestable jauregian

>>14

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Joxe Bergera
ZORIONAK gure po-
teatzaile beterranoari!
Haritza eta Gautxorien
partez.



**Iraia Vinagre
Muñoa**
ZORIONAK politta!!
Handitzen handitzen...
2 urte!! Mila muxu
amona Maria eta osaba
Eusebioaren partez.



**Iraia Vinagre
Muñoa**
Zeinen handia!! 2 urte!!
ZORIONAK potxola!! Me-
rienda goxoa prestatuko di-
zugu. Muxu asko izeba Ma-
rian eta zure lehengusu
Jose eta Zairaren partez.



Haizea
ZORIONAK politta.
4 urte!! Horren handia!!
Muxu asko eta ondo
pasa. Olazti eta Etxarri-
ko familiaren partetik.



Haizea
Nor da sorgintxo hau?
ZORIONAK potxola!!
Zure ahizpak, ama eta
aitaren partez, mila
muxu.



June eta Maddi
ZORIONAK June eta ZO-
RIONAK Maddi!! Ongi pasa
zuen zortzigarren urtebe-
tzean. Belarriko haundiko
bana eta muxu asko bikote!



Ibai
Ibai, zirilo hori!! ZORIONAK
eta ea prestatzen diguzun
bazkari bat, e? Jijijiji. Orain
bezain gidari ona jarraitu
izaten eta muxu asko ize-
baren partez.

**Bazkideek
deskontua**

Bakarra: 4,00€

Bazkideak: 3,50€

azaroak

6-12

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Musika

Alerta Gorria, Pornox eta DJ Bull. Azaroaren 6an, ostiralean, 23:00etan Irurtzango Larrazpi gazte elkartearen.

Transistores 50. Azaroaren 6an, ostiralean, 23:00etan Altsasuko Arkangoa tabernan.

Melech Mechaya. Azaroaren 7an, larunbatean, 20:00etan Irurtzango kultur etxean.

V. Larrazpitek. Azaroaren 7an, larunbatean, 22:30etan Irurtzango Larrazpi gazte elkartearen.

Antzerkia

Nómadas. Azaroaren 7an, larunbatean, 19:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **La llave maestra.**

Bancarota. Azaroaren 7an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Acrónima producciones.**

Verne txikia. Azaroaren 8an, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Irú teatro.**

Nómadas. Azaroaren 8an, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **La llave maestra.**

Zinema

Pride. Azaroaren 6an, ostiralean, 21:45ean eta azaroaren 8an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Un día perfecto. Azaroaren 6an, ostiralean, 22:00etan eta azaroaren 8an, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Film laburrak

II. Gozamenez lehiaketako lanak. Azaroaren 11n, asteazkenean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Gozamenez.**

Zinegoak jaialdiko lanak. Azaroaren 12n, ostegunean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Gozamenez.**

Mendi irteerak

Irati-Okabe. Azaroaren 8an, domekan, goizez. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Bizikleta irteerak

El Barranco, Logroñon. Azaroaren 8an, domekan, 7:30ean Altsasuko Barranca txirindulari taldeko mendi

bizikleta taldearen bajeeratik.

Erakusketak

IV. Arte Azoka. Azaroaren 8ra arte, astegunetan, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **ARTEbide.**

Betiko zein gaurko joste lanak II. Azaroaren 9tik abenduaren 6ra arte, 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean. **Maribel Mazkiaran.**

XXX. Altsasuko ferietako rallyko argazkiak. Altsasuko Dendarien Elkarteko denden erakuslehoetan.

Hitzaldiak

Adinduen sindromeak. Azaroaren 10ean, asteartean, 18:00etan Altsasuko jubilatue elkartearen. Hizlaria, Paola Roa-Granthon, mediku geriatra. **Josefina Arregi klinika.**

Argazkilaritza

XXX. Altsasuko ferietako rallyko lanen proiektzioa. Azaroaren 7an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Oskorraren zein kantu gustatzen zaizu?



www.guaixe.eus web orriaren bidez galdera hori egin dugu eta erantzuten dutenen artean Oskorraren Mauleren kontzerturako sarrera bikoitza eta poster sinatua zozketatuko da. Horretarako, osteguneko 10:00ak baino lehen eman behar da erantzuna. Guaixe.eus-en dagoen albistean sartu eta behean erantzuteko aukera dago.

Tailerrak

10 ordu sexuaz. Azaroaren 9an, astelehenean, 17:30ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean. **Gozamenez.**

Bestelakoak

Haurren jolas eguna. Azaroaren 7an, larunbatean, 16:00etatik aurrera Etxarrego frontoian.

Patata operazioa. Azaroaren 8an, igandean, 9:15etatik aurrera Urdiaindik Satrustegira. **Alegria de Iruña Peña.**

Lakuntzako II. Gastronomía Topaketa. Maroko. Azaroaren 8an, igandean, 18:30ean Lakuntzako Pertza elkartearen. **Txingurriye. Ikus 9. orria.**

Deialdiak

Koldo Martinez, Unai Hualde eta Javier Olló. Azaroaren 6an, ostiralean, 19:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean. **Geroa Bai.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 6an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbuzuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Indarkeria matxisten kontra. Azaroaren 7an, larunbatean, 12:00etan Altsasuko lortia kultur gune parean. **Altsasuko Udala.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Azaroaren 8an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero

SAIOA

9:30ean

Gaurko gaiak:

- Zamartzeko indusketak
- Abiadura Handiko Trena

Esataria: Alfredo

beleixe

107.3 FM

www.guaixe.eus-en ON LINE

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

SAKANA

Alkateek Nafarroako Gobernuari SPE aurrera eramateko inplikazioa eskatu diote

Sakanan adostutako ekintzak aurrera eramateko beharrezko diren baldintza eta baliabide ekonomikoen inguruko gaiak adosteko ibarreko ordezkariekin bildu dadila eskatu diote

Sakanako 2020 Plan Estrategikoa (SPE) ibarreko eragileen babes zabal eta oniritziarekin onartuzen 2014ko maiatzean. Plan estrategikoak lau arlotan aurrera eraman beharrezko ekintzak zehaztu zituen. Haiek aurrera eramateko Nafarroako Gobernuaren, Sakanako eta herrialdeko eragileen arteko elkarlana ezinbestekoa josten. Hala, aurtengo ilbeltzaren 13an Nafarroako Parlamentuak Sakanan egindako lana eta ahalegina aitortu zuen. Eta, aldi berean, Nafarroako Gobernuari eskatu zion adostasunaren bidetik SPE diruz eta giza baliabideez hornitzeko.

Aurreko legegintzaldian Sakanako ordezkariak Lourdes Goikoetxea lehendakari-ordearekin elkartuziren. SPE aurrera eramateko sei urteetan 6 milioi euro jartzeko eska-

tuzioten. Goikoetxeak berak ontzat eta beharrezkotzat jo zuen SPE eta hura garatzeko Nafarroako Gobernuaren eta Sakanako Mankomunitatearen arteko hitzarmena sinatzeko prest azaldu zen.

Gobernu aldaketa

Ibarreko alkate guztiak eta Sakanako Mankomunitateko presidentek Nafarroako agintari berriei idatzia bidali diete. Han plan estrategikoa gauzatzeko baliabidez hornitzea eskatu diote. Ekintzak aurrera eramateko beharrezko diren baldintza eta baliabide ekonomikoen inguruko gaiak adosteko Nafarroako Gobernuari Sakanak horretarako izendatu dituen ordezkariekin bildu dadila eskatu diote ere. Ordezkaritza hori osatzen dute: Aitor Karasatorrek (Mank-eko presidentea), Javier Ollok (Altsasuko alkatea), Jose Julian Garziandiak (enpresen ordezkaria), Joseba Garmendiak (Sakantzen Sarea) eta teknikari batek.



Aurreko legegintzaldiko Sakanako Plan Estrategikoa negoziatzaile taldea, Nafarroako Parlamentuan. ARTXIBOA

Sakanako ordezkariak ziurtatu dutenez, "Plan Estrategikoa gauzatzeko, garapen bide eraginkorra denez, aukera da bai sakandarrindako eta enpresendako, bai Nafarroa osoarendako ere". Gogoratu dutenez, "Sakanan bizi dugun egoeraren larriak eta gure herri eta eskualdearekiko konpromisoak, legez ez dagozkigun eskume-

nak, horien artean Garapen ekonomikoaren sustapena, gure gain hartu eta lantzera ekarri gaitu". Baina berretsi dute ezinbestekoa jotzen dutela Nafarroako Gobernuaren partehartze aktiboa.

Alkateek eta Mank-eko presidentek azpimarratu dutenez, "Nafarroako Gobernuaren eskumena da Garapen Ekonomikora-

ko politikak aurrera eramateko baliabide eta baldintzak erraztea. Nafarroako Gobernuaren elkarlan dinamika horretan sartzea ezinbestekoa da SPE bere osotasunean garatu ahal izateko, Sakanak ez baitu baliabide nahikorik bere kabuz ibilbide osoa egiteko". Sakanak bere etxeko lanak eginak dituela nabarmendu dute.

Ez izan zalantzarik, BirziklApp!



App honek hondakinak bereizten lagunduko dizu, birziklatzeko

Zalantzan zaude eta ez duzu argi non utzi hondakin mota batzuk? Jakin nahi al duzu nola birziklatzen diren ondoren? Inoiz baino errazagoa da; hartu zure mugikorra, ireki BirziklApp eta argitu zure zalantzak.



Android

Iphone

Jaitsi doan!!

Sustatzaileak

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

ECOEMBES

ecovidrio

AMBILAMP

ecoasimelec

ecofimática

ECOLEC FUNDACIÓN

ECOLUM

eco rae's

écotic

European Recycling Platform

tragamóvil

Garatzailea

Gestión Ambiental de Navarra, S.A.

Laguntzailea

Mank



Raf Atxuri

astekoa

Oskorrik adio

Astehuetan barrena Oskorritaldea bere azken emanaldiak eskaintzen ari da Pirinioko bi aldeetan. Oskorri izena aditzean nori ez datorkio gogora disko, abesti edo kontzerturen bat. Izan ere, talde bilbotarrak ibilbide luzean bi belaunalditako herri-tarren belarriak eta arimaren zokondoak goxatu ditu galanki.

Europako folk talde handiene-

tako batez ari gara, Gwendall, Milladoiro, Kajto edo Hennin-garnaren parekoa. Geure ondare ezmateriallean zaintzeko eta mirestekorik baditugu hainbat altxor, eta horietako bat, zalantzarik gabe, Oskorriren emaria da.

Profesionaltasun ikaragarri eta talentu mugagabeaz horniturik herri musikaren zoragarria goreneko kokketera ekarri zuten han-

go eta hemengo, aspaldiko eta osagai modernoak gehituz. Sonoritate bikainenaz gain, hitzen aukeraketan ere ase gaitz jardun dira etengabe. Batez ere Aresti daukagu Oskorrirenean, baina baita ere Bernat Etxepare, Amuritza, Itxaro, Sarri edo Jon Sarasuaren poema zinez ederrak.

Arimaren aldarte ezberdinak ukitzen ditu haren kantu-sorta

zabalak: sentimenduen hunkidura, abesti jostari eta dantzagarriak, doluzkoak, irrigarriak, amodiozkoak, salaketazkoak... Soka meheko ibilbide gorabeheratsuan ez dira beti denen gustuko suertatu eta tarteka kutsu kritiko eta ozpina nabarmendu dute.

Nikneronek *In Fraganti*, *Badok hamairu* eta *Landalan* diskoak aipatuko nituzke kuttunentzat eta

Lizarran Oinez batean eta Burunda pilotalekuan eskani kontzertu bana ez ditut ahaztekoak.

Oskorri badoa baina talde handiak bezalaxe ez erabat, haren abestiak gure baitan, gurekin batera batetik bestera eramane ditugu denboraren joanean.

Oskorri berrien zain, bejondeigula, bejondeigula.

Raf Atxuri

barrutik kanpora Urriak bat

Urriaren lehen Nazioarteko Zaharren, adinekoen, Eguna ospatu zen. Ospatu al genuen guk? Sakana aldean egun horretan egin ziren ekintza, aldarrikapen, edo festaren berririk ez dut izan. Ezjakitea? Gogo falta? Aldarrikatze korrik ez?

Hedabideetan, aurretik, ez zen egun horri buruz kanpainarik agertua, iragarkirik ere ez, eta badakigu, medio horietan ager-

tzen ez dena ez dela existitzen. Jakin-nahiak eraginda, egun horretako Nafarroako egunkari guztiak begiratu eta batean bakarrik atera zen artikulu bat, zaharrei egokitu behar zaien elikadurari buruz. Interesgarria, baina adinekoei dagozkien inkesta, arazo, bizi baldintza, eskubide eta gabeziei buruz ez nuen ezer aurkitu. Gogoeta eta hausnarketa sakonik ere ez.

Zergatik oihartzun eta interes falta hau? Baztertuak, ahaztuak gaudelako? Gutxi garelako? Errentagarriak ez garelako? Gure behar eta eskubide guztiak lortuak gaudelako? Gizarte honetan gure parte-hartzea eskasa delako? Ziur oihartzun falta horren zergatia ez dela bakarra. Gure jarrerak ere bai ote du zer ikusirik?

Bada egun honi inor ohartu gabe pasatzen utzi ez diona.

SASOIAk eta Nafarroako zaharren Koordinadora osatzen duten elkarteek, salaketak eta aldarrikapenak uztartu zituzten egun horretarako antolatu zuten ekintza. Jende mordoak elkartu ginen, Gaztelu Enparantza zeharkatu eta Diputazioaren aurrean kontzentratzeko. Bukaeran, Gizarte Sozialeko kontseilariari eskaera hauek helarazi genizkion: pentsio duinak eta pentsio sistema publi-

koa; osasungintza publikoa eta zerbitzu onak; dependentsia legeari murrizketarik ez; eta guztioi ordezkaturik gaituen kontseilua.

Biharamunean Nafarroako hedabide guztiak ematen zuten gure ekintzen berri. Atera ondorioak. Izango da zer lortu dugun galdetuko duenik. Erdarazko esera zaharra gogoaraziko diot: "*El que no llova no mama*".

SASOIA

hara zer dien

Polimaitasunari buruz galdetu digute

Astehonetan gure proiektua aurkezteko elkarrizketa bat egin digute. Bertan gure lanaz, gure proiektuaz hitz egiteko aukera izan genuen. Gure lana sexuen hezkuntza, berdintasuna eta tratu onak sustatzeko proiektuak garatzea da. Horrela, udaletxeetatik edo ikastetxeetatik bultzaturik, sexuen arteko harreman onak eraikitze euskarriak lantzen ditugu.

Elkarrizketan gustora aritu ginen, baina sexologo bezala elkarrizketatzen gaituztenean betiko galderak daude airean.

Sexologia askotan morboarekin lotuta etortzen da eta asko-

tan sexuen errealitatea eta hauen elkarbizitzan suertatzen diren egoeraren aurrean gure iritzia eskatzen digute, are gehiago gai horiek ingurune sozialeko baloreekin puskatzen badute.

Lehen goan polimaitasunari buruz gure iritzia eskatu ziguten, gai honek gaurkotatzen handia hartu duelako. Gure bat-bateko erantzuna zera izan zen: gauza bat da gure autua bizitzan, pertsonak bezala, eta beste asuntu bat da sexologiaren ikuspuntutik eman daiteken erantzuna.

Askotan aipatu dut sexologia zientzia bat dela eta zientzia bezala bere ikasgaia sexuak direla,

hau da gizon eta emakume iza-tea eta elkarren artean sortzen diren harremanak.

Polimaitasunari buruz galdetzerakoan, gehienetan ez dira egoerak aztertu nahi. Gure iritzia honen alde edo kontra dagoen jakin nahi da. Gaineratu behar da erantzunaren arabera etiketatu zaituztela, aurrerakoia edo ez zaren azpimarratuz.

Baina sexologo bezala, eta sexologiak eman dizkidan ezagutzak kontutan hartuta, ezinezkoa da alde edo kontra nagoen esatea. Sexologiak egoerak aztertzen laguntzen du eta sexuen arteko elkar ulertzea bultzatzeko balio

du. Sexuen arteko elkar ulertze bide honetan zer berri dakar polimaitasunak?

Polimaitasunaz hitz egiterakoan amatorioz ari gara, harremanetaz. Beraz, harremanetan, elkarrekin egoteko eta maitatzeko beste aukera bateskaintzen digu.

Aukera betidanik egon dela esango nuke, baina nahiko izkutatuta egon da. Horrela, gaia agerian agertzeak bideak zabaltzen dituela dirudi.

Gure arteko harremanetaz ari garenean ezin dugu ahaztu desio-etaz ari garela, eta ezinbestean, komunikazioaz. Sexuen arteko harremanetan, norberak bilatu

behar du bere formula, norbere buruari ezertara behartu gabe. Nahi ditugun harremanak sortu ditzazkegu, beti ere gure desio eta beharrei entzunez. Horrela, bakoitzak aukeratu dezala daukagun karta zabalean zein den hoberen egokitzen zaiona, ahaztu gabe askatasuna norbere aurrean dagoela, norberak behar duena eta sentitzen duena aukeratzeko, norbere burua eta besteak errespetatuz, nolako harremana nahi dugun argi eta arduraz azalduz.

Olatz Berastegi

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano,

Eñaut Agirrebengoa Apaolaza, Larraitz Amadoz Lazkano eta Erkuden Ruiz Barroso

ZUZENTZAILEA: Patxi Flores

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikako Salburordetza

SAKANA

PHTren ingurumen inpaktu txostena egiteko kontsulta epea zabalik

Nafarroako eta EAEko tren azkarreko lineak lotzeko proiektuen ingurumen inpaktuko Azterketaren zehaztasun maila zein izan behar duen erabakitzeko ekarpenak eskatu ditu Ingurumen Estatu Idazkaritzak. Hego Euskal Herrian ukitutako administrazioek eta ingurumenaren defentsaren aldeko erakundeek abenduaren 2ra arteko epea dute

Sustapen Ministerioiko Tren Planifikazio Idazkariordetza Nagusia Kantauriko eta Mediterraneoko tren azkarreko korridoreak lotzeko proiektua esku artean du. Iruñea eta Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE) lotzeko dagoeneko aski ezagunak diren lau lotura alternatiba proposamen darabil

esku artean eta denek Sakana ukitzen dute. Lanak egin aurretik lau aukera zabal horien Ingurumen Inpaktu Azterketa (IIA) egin beharra dago.

Azterketa hori egiteko, ordea, proiektuek ukitutako administrazioek eta eragileek zehaztasun maila finkatu behar dute. Horregatik, Ingurumen Ebaluazio Zuzendariorde Francisco Muñoz Garciak jakinarazi die IIA zehazteko kontsulta epea abenduaren 2ra arte zabalik dagoela eta bitarte horretan nahi dituzten ekarpenak egin ditzaketela. Sustatzaileari kontuan har ditzakeen ibilbide aukera berriak,

informazioak edo araudiak jakinarazi diezaioke.

Ezaugarriak

Tren azpiegituraren ibilbide posibleak eta ingurumenean izan ditzakeen ingurumen inpaktu nagusiak biltzen dituen txostena jaso dute administrazioek eta eragileek. Txostengileek argi azaldu dute ez direla behin betiko alternatibak, baina linea berriak liratekeela dio.

Hala ere, proiektuak izan beharreko ezaugarriak zerrendatu ditu: "hasiera batean" trafiko mistorako diseinatuko da; Europako estandarrik betetzeko baldintza jakin

batzuk izanen ditu eta linea berriaren "azken irudia" elektrifikatutako trenbide bikoitza izanen da, gehienez 250 km/o (trenbide bikoitzen ardatz artekoa 4,7 metrokoa da eta plataformaren zabalera 14 m-koa).

Hala ere, txostengileak jakinarazi du gaur egun dauden trenbideak bikoiztea eta zenbait tartetan trenbidean 3. erraila jartzea aurreikusten dela, "tarteko etapa edo behin-behinean". Trenbidearen elektrifikazioari dagokionez, jakinarazi du 25.000 kV-eko bisare liratekeela.

Txostengileen iritziz korridore proposamenak ingurumen alde-


tik bideragarriak dira, "baina haien barruko trenbide ibilbideak inpaktu handiak eragozteko doitu egingen dira". Lanak egiten diren bitartean ingurumen inpaktu nabarmenenak gertatuko liratekeela aipatu dute txostengileek. Behin trenbidea eginda eta erabiltzean zeharka babestutako eremu eragin liekeela paisaia eta soinu kostuengatik. Eta zuzenean, gertuen daudenekin soinu entzuten lukete, paisaia balioei eraginen lieke eta haiekin lotura duten jardueri ere. Animaliak batetik bestera pasatzeko pasabideak eskatzen dituzte.

+www.guaixe.eus

Lau alternatiba

Aldaba herriaren hegoaldean abiatzen dira proposatutako lau korridoreak. Guztiek ere EAEko AHT linearekin toki ezberdinetan dute lotuko lirateke. Korridore propo-

samen batek bestea baztertzen du, nahiz eta denek hasieran ibilbide bera izan.



Sustrai Erakuntza egungo trenbidea berritzearen alde eta tren plataforma berriaren kontra

Sustrai Erakuntza fundaziotik AHT egiteko korridore proposamenak "gehiegizko gastu ekonomiko eta ingurumen eraginengatik zentzugabekeriak dira". Porlanaren espekulazio ekonomi-

koaren garaira bueltatzea dela dio, "tren plataforma berria eraikitzea proposatzen baitu, egungoa ez ikusia eginez edo ahaztuz".

F, E eta H korridoreek lan handiak eskatzen dituztela eta V korri-

dorea, berriz, egun dagoen trenbidearen paralelo doan plataforma berria eraikitzea proposatzen duela diote Sustrai Erakuntzatik. Sakana zeharkatzen duen trenbidea hasieratik bikoizteko plante-

atuta dagoela gaztigatu dute. "Funtsean egungo korridorea ez dutela hobetzen salatu dute fundaziotik. Eta txostenean bi aukera ahaztu egingen dituzte: zero alternatiba, ezer ez egitea, edo egungo trenbi-

dea berritzea". Diru publikoa xahutu beharrean "egungoa berritzea aukera errealak eta ekonomikoak kontuan ez izatea" salatu du fundazioak.

>> Irurtzun

Asteburuan eta asteazkenean, festak

San Martinen omenezko ospakizunak asteburuarekin batera iritsiko dira Irurtzunerera. Musika nagusi izanen den asteburua

igandeko artisau azokarekin borobilduko da. Ospakizunak, hala ere, asteazkenean izanen du segida.



Egitaraua

>> Azaroak 6, ostirala

20:00etan La Nueva Compañiaren *Que viene mi marido* antzezlan, jubilatutako elkarteak.

23:00etan Kontzertuak Larrazpin: Alerta Gorria, Pornox eta DJ Bull.

>> Azaroak 7, larunbata

20:00etan Kontzertua kultur etxean: Melech Mechata.

22:30etan V. Larrazpitek.

>> Azaroak 8, igandea

10:30etik 14:30era artisau azoka. **17:00etan** Herri kirolak. Sakanako Harrijasotze Eskola, plazan. (Euria

egitekotan, frontoian).

18:00etan Gozogintza txapelketa eta dastatzea Erga Larreak elkarteak. Ordu erdi lehenagora arte aurkeztu daitezke postreak.

>> Azaroak 11, asteazkena

10:00etan Dianak.

11:30etan Erraldoi eta buruhandien konpartsa.

12:00etan Meza.

14:00etan Jubilatuen bazkaria. Bi txerrikumeren zozketa.

16:30etan Mus txapelketa Iratxo elkarteak. Ordu erdi lehenagora arte izen ematea zabalik.

17:00etatik 20:00etara Dantzaldia Rubi Berriak taldearekin.

18:00etan Haurrendako txokolate-jatea.

20:00etan Zezensuzkoa, Foru plazan.

>> Etxarren / Arakil

Haurrak jolas parkeaz gozatzera

Arakilgoudazkeneko agendan haurren jolas eguna da biharkoa. 16:00etatik aurrera Etxarren gozatzera Arakilgo udazkeneko agendan haurren jolas eguna da biharkoa. 16:00etatik aurrera Etxarren gozatzera Arakilgo udazkeneko agendan haurren jolas eguna da biharkoa.

Bestalde, Udazkenak Arakilen gaia duen argazki lehiaketa anto-

latu du udaleko kultura zerbitzuak. Lanak aurkezteko epea azaroaren 15ean despidituko da. Bi sari izanen dira: epaileena (150 euro) eta herritarren bozka bidez aukeratutakoa (50 euro). Oinarriak www.arakil.net web orrian kontsultatu daitezke.

SAKANA

Patatak biltzeko operazioa

Igandean, 9:15etik aurrera, Urdiain eta Satrustegi artean egingen da Iruñeko Hermanitas de los Pobres-en aldeko bilketa

Patata Operazioa berriro martxan jarriko dute Alegria de Iruñako peñako kideak. Igandean izanen da. 9:15 aldera Urdiainen abiatuko dute patata bilketa eta Satrustegi bitartean ariko dira horretan. Herriz herriko ibilbidean iritsi direla jakinarazteko megafono bidez Patata Operazioa behin eta berriz errepikatuko dute. Bozina joz ere arituko dira euren burua nabarmendu eta sakandarrek patatak eman diezaiogun. Patatekin batera, aurten ere ziurrenik alubiak, kalabazak, tipulak edo dirua ere jasoko dutela. Guztia Iruñeko Hermanitas de los Pobres-en



egoitzarendako izanen da. Emaillek kongregazioaren egutegi bat jasoko dute haien esker onez.

Iruindarrak ekimenarekin hasi zirenean aldi berean bi ibilbide egingen zituzten: Sakanakoa eta Artzibar eta Erroi barkoa. Azken bide hori egiteari aspaldi utzi zioten. Aurtengoa 53. aldia da Patata Operazioa egingen dena.

Arkeologia indusketa Zamartzen

Ane, duela 1700 urteko uhartearra

Aldameneko soroan agertutako harlanduzko eraikin hura suntsitu zuten eta haren gainean berre-raiki zuten. Zoru horretan, beheko paretaren angelu batean, lur emate bat agertu zen. Erromatarren garaiko haur baten hilobia da. 38 eta 40 artezituela hilzen umearen hezurdura da opatu dutena. "Behar baino lehenago jaioko zen. Edo hilda. Ez dakigu". 280 eta 330 urteen artean hilzela zehaztu dute arkeologoek.

"Ez dakigu neskatoa edo mutikoa den, baina han industen ari-

tu zen azken pertsonaren izena eman diogu, Ane".

Pasa den astean egindako aurkikuntza horren garrantzi handia nabarmendu du Valle de Tarazagak: "opatu ditugun 300 bat bana-koetatik erromatar garaiko hezurdura bakarra umearena da. Gai nontzekoak X-XIV mendeartekoak direla ziur gaude".

Eraikin baten barruan hilobi bat opatzea normala da? Bertakoen artean, Burdin Aroan eta erromatarrek iristeraino, umeak etxe azpian lurperatzeko ohi-

tura zegoen. Baina erromatarrek ere ohitura hori zuten, baldin eta umeak 40 egun baino gutxiago bazituzten. Erromatarrek gauzez lur ematen zieten erritual jakin batekin. Oraindik ez daki-te pertsona hori zer zen. Baina mota guztietako probak eta analisiak egin nahi dizkiote hezurdurari, "gure ikerketarako nahikoa garrantzitsua delako". Hezurdura "oso kaltetuta" dago, "umeen hezurak oso hauskorrak direlako eta ia 2000 urte pasa direlako".

>>

Museoa

Aurkitutako objektuak tokian bertan erakusteko asmoa dago. Museo txiki bat zabalduko da. Sakanako aurreneko museoa izanen dena Zamartzeko espiritualtasun etxeko zenbait gelatan egokituko litzateke. Dagoeneko erakusketa txiki bat prest dago, aldi baterako dena. Opatutako guztia ikertu eta beharrezko ondorioak atera ondoren egingen dute behin betiko museoa.

Museo txiki bat egin nahi dute. Indusketan opatutakoa bertan erakustea nahi baitute. Txanponen bidez Zamartzeren bilakaeraren kronologia egin nahiko lukete.

Museoan erromatar garaian zer nolako tokia zen Zamartze azaldu nahi dute. Mansio baten irudiak jarriko dituzte, "etortzen dena irudikatu dezala tokiaren balioa zein zen". Galtzadan barna bidaia egingen zutenen egungo autopisten bazterrean dauden zerbitzuguneen parekoa litzateke erromatar mansioa. Bidaiariak, inperioaren misio ofizialetan zeaudenak batez ere, masioetan dohainik hartu zezaketen atsedena edo zaldiz aldatu eta bidaian segitu



Indusketa gunea

Bi edo hiru hektareako eremua hartzen du Zamartzeko indusketa gunea. Valle de Tarazagaren ustez, "Aracaeli mansioa izateko nahikoa handia zen. Vicus batean bilakatuko zen ziurrenik, pertsonen pilatze bat. Ez litzateke hiri bat izanen. Erromatar hiri baten

zezaketen. Uharteko Aracaeli mansioaren modukoak erromatar estatuaren administrazio gunea gisa bezala erabil zitezkeen. Lurraldeak kudeatzeko ezinbesteko tokiak

hirigintza estandarrek ez ditu". Ezin dute guztia induskatu. Sei urte hauetan arkeologoek bereziki elizaren mendebaldean eta baratze-indusketa kanpaina handienak. Baina laginak ere egin dituzte inguruko beste eremu batzuetan, esaterako, mendebaldera dagoen soro batean, ibai ertzean edo txipudian.

ziren. Opatutakoaren berri emateko argitalpenak egingen ditu Adituko lantaldeak. Eta horren inguruan eztabaida eragin nahi dute.

>>



Eremua babestu

Arkeologia-aztarnategiek, berez, babestuta daude. Baina Zamartzeren garrantzia eta aberastasuna kontuan izanik, Adituko arkeologoek, Iruñeko elizbarrutiaren eta Uharte Arakilgo Udalaren

laguntzarekin, aztarnategia Kultur Intereseko Ondare izenda dezala eskatu diote Nafarroako Gobernuari. "Izendapen horrek babes maila handiena emanen lioke aztarnategiari".

>>

Busti

Zamartzen agerian uzten ari direna Sakanaren arkeologia-ondarea eta historia da. Aztarnategiarekin parte hartu nahi duenak modu askotara egin dezake: ikerketa eta indusketa lanean lagunduz; indusketa bisitatuz edo hitzalditara joanez interesa piztuta mantenduz edo ikerketarako baliabide ekonomikoak edo materialak emanez, ez baitute inolako laguntza ekonomikorik.



Arkeologia indusketa Zamartzen

Historia zertzeladak

I. mendea Erromatarrek euren erako gizarte bat sortzen saiatuko dira. Horretarako, bide sistema, hiriak sortu, baliabideak izateko landa eremua egituratzen dute. Litekeena da legioetako beteranoak kokatzea. 20 urteko zerbitzu militarreko konpromisoa bete eta lizentziatu ondoren lur eremua ematen zieten. Aracaeliren kasua hori izatea posible da.

280 urte aldera Aracaelin suntsiketa baten arrastoak opatu dituzte. Suntsiketa horrek zerikusia izan dezake Inperio Galikoarekin, erromatar inperiotik banatu zen zati bat. "Litekeena da Sakana bi inperioen arteko muga izatea. Suntsiketaren garaian ez dugu kanpoko elementurik opatu, denak erromatarrak dira, gatazka zibil bat izan n litzateke".

332 urte aldera Asentamendua berreraiki egin zen eta data horren inguruan bigarren suntsiketa bat izan zen.

IV-V mendeak Ez dakite asentamendua erabat husten den. Erabat erromatar izateari utzi zion.

VI-VII mendeak Merobingioen arrastoak agertu dira.

988-997 Siseguto apezpikua- ren garaian Zamartzeko elizaren aipamena jasoa dago.

1007-1033 Antxo III.aren garaian litekeena da eliza berreraikia izatea. Arkeologoen aurreko elizaren egitura opatu dute. Eliza gotzainari buelatu zion erregeak 1027-103 urteen artean.

1040 Eliza berria eraiki zen, egungoa. Santutegiaren loral- dia XII. eta XIII. mendeak izan ziren. Baina gerora Aralarko santutegiak hartu zuen garrantzia.

XIII-XIV Zamartzek eusten dio. Inguruko lau herri zergak ordaintzen zizkieten: Muztillano, Mutiloa, Amurgin eta Uhart- e Arakil. Lau herriek Zamartzen hildakoak lurperatzeko eskubi- dea zuten. Lehen hiru herriak desagertzean eta Uhart- e basti- da bihurtzean litekeena da Zamartzen lur emateko ohit- ura galtzea. Izurrite edo kolera garaitan erabiliko litzateke soi- lik gerora. Aralarko santutegia hornitzeko egitura batean bihur- tuko da Zamartze.

2002 Eliza eta aldameneko etxea erabat zaharberritzen da.

+www.guaixe.eus

Zamartzeko santutegian sei urtetan egindako indusketek I. eta IV. urtean arteko mansio erromatarra, Bordele-Astorga galtzada izan litekeena eta Erdi Aroko hilerria agerian utzi dute.

Adituko arkeologoen ez dute heldu den urtean Zamartzen segituko. Baina Sakanan lanean segituko dute: Aracaelik izan duen presentzia ulertu; eragin zuen kontrola; bertakoekin izan zuen erlazioa eta, adibidez, San Migel moduko elementuak kristautasunaren aurretik sakratutzat jotzen zirenen jarraipena ote diren aztertuko dute

Udaberrian etorri eta udazkenean joan. Halaxe ibili dira 2010az geroztik arkeologoen Zamartzen. Uda partean inurri lana egiten, neguan laborategian ikertzeko nahikoa material, "artefaktu", izateko. Fran Valle de Tarazaga Monterok (indusketa eta ikerketa arduraduna) eta Emma Bonthornek (osteoarkeologoa, hezurduren arduraduna) gidatu dute lana eta lehenak "arrakastatsua" izan dela azaldu digu.

Ondorioak

Valle de Tarazagak esan digunez, "erromatar garaia historia-segi- da oso garbi azaltzen da. Gainera, gertuen dauden aztarnategien antzekoa da (Araba, Pirinioak eta Mendigorria)". Aldi berean, "oinarri indigena opatu dugu. Erromatarren luxuzko, administrazioko edo kultura handikoen artikuluekin batera egunerokoan erabiltzen edo ohikoak ziren zeramikak, erro- tarriak eta beste opatu ditugu. Hai- tako batzuk populazio baskoiarekin lukete zerikusia".

Erdi Aroari dagokionez, "iker- ketak aro horren hasiera pixka bat argitu du. Erromatarren garaian erabat hautsi zen eta Pirinioez bestaldeko errealitatekin penin- tsulakoekin baino lotura estuagoa ezarri zen. Erdi Aroaren bukaerara arte Nafarroak izan zuen historiarekin bat datorrela dirudi".

Absidearen ondoan 10 hilobi berreraikita ikus daitezke. Ere- mu horretan 80 m²-tan lan egin dute arkeologoen eta lurteko hain- bat mailetatik 300 hezurdura jaso dituzte. Haietako asko sakabana- tuak zeuden hilobiak berreraibil- tzeko hustu zirelako. Halakoak 100 ziren. "horrek erakusten du Zamartzeko hilerriak erabilera exajeratua eta intentsua zuela. Herritarrendako zuen garrantzia eta santutegiarena berarena adie- razten du". Haien ikerketak ematen dituen ondorioak Nafarroa- ko populazioarekin alderatuko dituzte.

Ikerketa

Adituko arkeologoen hezurdurak laborategian ikertuko dituzte. Lan- gintza horretan beste herrialde batzuetako unibertsitate eta labo- rategiak adituen laguntza izan- den dute, bereziki Erresuma Batu- koak, langintza horretarako tres- neria garestia baita. Hezurdura bakoitzari azterketa antropometri- ko zorrotza egingen diote. Hortik datu orokorrak aterako dituzte: altuera, hil zenean zuen adina,



Sei urtetan urtero etorri dira arkeologoen Zamartzera. Goian Erdi Aroko hilerria lanean. UTZITAKOIA

Arkeologia arrakasta Zamartzen

emakumea edo gizona den...

Horretaz aparte, populazioan patologiek zuten eragina aztertuko da, esaterako, artritis, anemia, izurriteak eta besteek eragin zieten ikertuko dute. Dagoeneko bada- kite, uhartearrek Ingalaterrako- ek baino artritis gutxiago zutela. Laborategian begiratuko dituzten beste gauzetako batzuk dira: hezur

hautsiak dauden, medikuntza tra- tamendurik jaso ote zuten, edo populazioaren jardueren, ogibi- deen eta bizi-baldintzen inguruko arrastoak bilatuko dituzte.

Aldi berean, azterketa kimiko- ak egingen dituzte. Bereziki isoto- po egonkorrekin, eta horrela per- tsona zein eskualdeetako zen eta bere dietaren oinarria haragia,

begetalak, arraina edo beste ziren jakinen dute. Kasu batzuetan kro- nologia zehazteko karbono 14aren proba egingen diete hezurdura batzuei. Eta kasuren batean DNA ikerketa egingen dute, hezurdura jakin batzuen inguruan gehiago jakiteko. Laborategian ikertzen zenbat denbora ematen duten zehazterik ez dago. +www.guaixe.eus

Zer opatu dute

Zoru mota asko eta pareta gutxi. "Nahikoa interesgarria da. Ezer baino hobea. Baina, aldi berean, nork bere onetik ateratzen du. Paretekin espazioei zentzua ematen diegu, zertarako erabiltzen ziren, kanpoan edo barruan gauden dakigu". Bi suntsiketa handirekin, eraldaketa handiekin eta erromatarren ondoren Zamartzesegitu zuenez harriak berreraibilitzea normala da. Txanpon ugari opatu dituzte arkeologoen sei urtetan eta horrekin harriritu daude, "indusketa ere- mu nahiko txikia izan baita". 100-150 txanpon berreskuratu dituzte, kalitate onekoak. Haietako asko lur maila oso jakinetan, esatera- ko, aipatutako suntsiketei lotuta-

koak. III. mendeko suntsiketa garai- ko txanpon erreka aurkitu dituzte. Galieno (253-268) eta Claudio Gotico (268-270) enperadoreen- ak dira. Biek ere Inperio Galiko- ko gatazkarekin zerikusia izan zuten. Biek ere txanpon ugari jaurti zuten eta haienak opatzea erra- za da, gehiegi baitaude.

IV. mendekoa izan daiteke alda- meneko soroan opatu duten bidea, Bordele eta Astorga lotzen zituen galtzada izan litekeena. Baina inguruan gehiago lan egin behar- rra dute. 2013an eta 2014an egin zituzten indusketak soroan eta kalite oneko harlanduz egindako erromatar eraikin baten arrasto- ak opatu zituzten. Erromatar garai guztietako beira, txanponak eta bestelakoak azaleratu dituzte.

Erromatarren garaia ondoren "erromartasuna" galdu egiten da. Eraikuntza ongi eginik ez dago. Silo batzuk opatu dituzte eta pilatze- en modukoak diren hormak ere. Baratzean, erromatarren arrasto- ak opatu dituzten tokian, Erdi Aro- an jarduera egon izanaren arrasto- ak opatu dituzte. Elizari laguntza ematen zioten eraikinak liriateke, eli- za bera baino handiagoak haieta- ko batzuk, nahiz eta arrasto handi- rik ez utzi. "Esaterako, Zamartze- ri ordaindu beharreko zergetako bat behi bat zen. Hura non gorde izan beharko zuten". Jakina da, esate- rako, 1546an Zamartzeko txantre Martin Cruzaten morroiek azienda buruak eta ahuntzak bereganatu zituztela, uhartearrak Santa Luzia bezperan zeudela baliatuz.

9 lagunendako

TAXIA



948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxorri Arantz

» Altsasu

Sunsundeguiko egiturazko arazoak berdin segitzen dutela salatu du LABek

Sindikatuak azaldu dutenez, zuzendaritza berriaren bideragarritasun plana martxan jarri eta bi urtera antolakuntza falta eta langileei ordaintzeko arazoak segitzen dute

Sunsundeguiko LAB sindikatuak jakinarazi duenez, enpresan egiturazko arazoak bertan segitzen dute: "horren adibide garbia da enpresak duen antolakuntza falta eta langileei ordaintzeko dituzten arazoak". Sindikatutik adierazi dutenez, "arazo horiek gainditzen ez badira enpresaren bideragarritasuna bera da arriskuan dagoena". LABekoen helburua "guztindako lan baldintza duinak" lortzea da.

Zuzendaritza berriak bideragarritasun plana 2013an jarri zuen eta horrekin batera 40 langile kale-ratu eta 178 gelditu zirela gogorazi dute LABetik. Salatu dutenez, "prekaritatean eta ordu estretan



Sunsundeguiaren autobus bat.

oinarritutako ekoizpen ereduak martxan dagoena diru publikoa-

rekin erreskatatutako enpresa honetan". LABen ondorioztatu dutenez, "duela bi urte egondako kaleratzeen helburua prekarizazioa zen".

Azken bi urteetan kontratazioekin batera (300 langile gaur egun) prekaritateak gora egin duela salatu dute LABetik: "behin behinekotasuna %20tik gorakoa da. Kontratu berrien lan baldintzak aitzintasan handiagoa duten langileena baino kaxkarragoak dira". Langileek nominak kobratzeko dituzten zailtasunak ere jakinarazi dituzte: "askotan epe-lik kanpo kobratzen ari dira ordainketa ezberdinetan frakzionatuta". LABek jakinarazi duenez, aurtengo garilean eta agorri-lean aparteko 6.000 ordu sartu dira enpresan. Ilbeltzeko aparteko orduen kopurua ikuskaritzan salatu zuen sindikatuak eta enpresak zigorra jaso du.

»

Onddo goxoak dastatzeko garaia

Gure lurra, gure onddoak leoa-rekin Onddo Astea antolatu du Altsasuko Alde Zaharreko tabernarien Xurrut elkarteak. Dozena erdi tabernetan zizekin egindako gastronomia-gutziak eskaintzen dituzte, atzotik domekara arte. Pintxo eskaintza berezia dastatzera animatzen diren guztiak lehiketa batean sartuko dira: Sant Sadurniko (Bartzelona) Freixenet upategira bi pertsonarendako bisita, hotela barne edo elkartekeo taberna bakoitzean bi pertsonarendako afaria.

Tabernen eskaintza

Arkangoa: erregosia, onddo apar eta airearekin. Gautxori: ahatez eta ondoz betetako pasta. Koxka: masaia-la, foie eta sagar karamelizatua. Lezea: onddoak, foie, purea eta Pedro Ximenez. Urtzi: onddoak, bakailao brandada eta patatak. Xume: ondoz betetako alberjinia eta bakailaoa.

»

Adinduen sindromeaz

Asteartean, 18:00etan jubilatuko elkarteak

Josefina Arregi klinikak jasoa duen jakintza sakandarraren artean zabal-tzeko zikloak aurrera segitzen du. Heldu den asteartean Paola Roa-Granthon mediku geriatrik adinduen sindromei buruzko hitzaldia emanen du. Besteak beste, erorikoen eta loaren sindromeak izanenditu aztergai. Eta haiei buruzko informazioa eta prebentziorako jokabideak emanen ditu.

»



Adinduek ariketak egiteko gailuak

Idertzagailu eta Erkuden kaleen arteko bidegurutzean dagoen berdegunean adinduek ariketak egiteko lau tresna jarriko dira: parean pedalak dituzten bi aulki, besoak mugitzeko zutikako bizikleta bat eta eserita sorbalda lantzeko tresna. Altsasuko Udalak beharrezko aurrekontu aldaketa onartu zuen pasa den asteazkenean. Berdegunean baldosazko zorua egokitzea eta gero tresnak jartzea 7.000 euroko aurrekontua du. Udalak eta Caixabank-en gizarte ekintzaren bidez ordainduko dira lanak. Bilkuraberean Altsasuko Udalak Coyser enpresari erreklamazioa egitea erabaki zuen. Enpresa horrek Lezaldeko urbanizazioa egin behar zuen baina lanak gelditu ziren. Epaileak udalak enpresari 114.629,66 euro ordaintzerazigortu du. Udalak ordainketa egitea erabaki du. Baina ez dago ados kopuru horrekin uste baitu aplikatutako araudia beste bat dela eta 83.040,90 euro ordaindu beharko lizkioketela. Pasa den asteko udal bilkuran udalak Nafarroako Itun Ekonomikoaren defentsan eta estatuko emakumeen martxaren aldeko mozio bana onartu zituen.

»

Txakurren pozoitzea gizon sakandar bati leporatu diote

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, 44 urteko sakandar bat atxilotu zuen irailaren 17an. Pozoia zuten haragi bolak jateagatik 4 txakur eta beste 3 larri toxikatu ziren irailaren 12 eta 14 artean. Gertaerengatik Foruzaingoak bost salaketa jaso zituen. Atxilotutako gizonari kalteak eta animaliekiko tratatu txar delituak leporatu dizkio Foruzaingoak. Eginbideak Iruñeko Instrukzioko 2. Epaitegiari eta Ingurumen Fiskaltzari pasa zizkion lastailaren 23an.

Lasaitasun eskaera

Iraileko bigarren asteburuko txakurren pozoitzeen ondoren gertatutakoa salatzen sortu zen



Maskoten pozoitzea salatzen egindako manifestazio buruko pankarta.

Huellas de Altsasu taldea. Atxilotetaren ondoren jendea zein

izan daitekeen espekulatu hasita ekarri duela aipatu dute tal-

detik. Horregatik, "talde eta sakandar gisa lasaitasunerako deia egiten dugu. Utz dezagun justiziak pertsona hori zigortu dezala edo ez. Ez gara ez epaileak ezta borroroak".

Taldearen lehen helburua irailko gertakariak argitzea da. "Oraindik gutxi dakigu eta, horregatik, lasaitasuna eskatzen dugu". Altsasuko Udalari auzian akusazio partikular gisa aurkezteko eskatu diote. Huellas de Altsasuk gaur egun 23 bat pertsonak osatzen dute. Baina nahi duen guztiak atek zabalik du. Maskota guztien defentsan ariko den elkarte bat sortzeko urratsak ematen hasi dira.

» Bakaiku



Gaztainak eta galtzada

Biak lotu zituzten larunbatean aurtengo Gaztain Mozte egunean. Bakaikuarrekin batera Milakolore elkartekeoak beheko basora joatera animatu ziren, 50 pertsonatik gorako taldea osatuz. Behin gaztainadi zeudela Agustin Lopez de Zubiriak gaztainondoen inguruko informazio argigarriak eman zizkien bildutakoei.

Madubitan bertan izan zuten auzatea. Nicolas Arbizuk erromatar garaiko eta Bernoako galtzaden inguruko informazioa eman zien eta Bakaikuko galtzada auzolanean azaleratzeko gonbitea luzatu zuen Arbizuk. Herrian gaztainak lorontzietan jarri zituzten. Heldu den urtean basoan aldatuko dituzte. +www.guaixe.eus

» Arruazu

Askapeneko auzipetuendako absoluzioa eskatu dute

Askapenaren kontrako auzia astelehenean despeditu zen eta Amaia Izko abokatuak bost auzipetuendako absoluzioa eskatu zuen. Abokatuak argudiatu zuen ez dela frogatu ETak inoiz Askapena zuzendu duenik, ezta bost auzipetuek harekin inolako harremanik duenik ere. Haien artean da Aritz Ganboa De Migel arbazuarra. Fiskaltzak 6 urteko espetxe zigorreari eta Askapena legez kanporatzeko eskaerari eutsi zion. Akusazioek, AVTk eta Dignidad y Justicia, zarpina eta hamarna urteko eskaerak egin zituzten.

Bestalde, atxilotutakoei elkar-



Sakanatik Madrilera joan ziren.

tasuna adierazteko eta Euskal Herriaren kontrako epaiketa politiko gehiago ez izateko manifestazioa egin zen Madrilan. Sakandarrak betetako autobusa Madrilera joan zen.

»

Altsasuarrak denda txikien aldeko iragarkian

Altsasuko sei denda eta euren dendariak iragarki bateko protagonista izanen dira. Nafarroako Gobernuak denda txikietan erostekak bulkatzeko kanpaina baten zati da Tafallan eta Altsasun grabatutako iragarkia. Nafarroako telebistetan eta zinemetan emanen dute. Egu-berriko kanpainaren aurretik iragarkia ikusgai izanen da. Altsasun astelehenean Asensio arropa denda, Juan Antonio Galartzaren harategian, Julene Iurrin-denda, Arkatz liburu-denda, Sakana optikan eta La Cigüeña denda grabatu zuten.

» Lakuntza

Munduko sukaldari lakuntzarren garaia



Lakuntzarrak sukaldari irakasle eta ikasle izanen dira aldi berean. ARTXIBOA

Maroko, Euskal Herria, Hego Amerika eta Senegalgo errezetak prestatzen ikasteko aukera izanen da lau igande arratsaldeetan

Txingurriyek antolatuta hemen dira Lakuntzako II. Gastronomia Topaketak. Duela bi urteko esperientzia on eta arrakastatsuen ondoren sukaldaritzaren inguruan lakuntzarrak elkartzea erabaki du elkarrekin. Orduko formatu bera izanen dute topaketek. Hala, sukaldaritzaz aitzakia hartuta, normalean biltzen ez diren pertsonak bildu eta elkarrengandik jatekoak nola prestatuko ikasiko dute.

II. Gastronomia Topaketak lau igandez luzatuko dira. Lakuntzako Pertza elkartean jarri dute hitzordua, 18:30ean. Egun bakoitzean herrialde bateko gastronomia ezagutzeko aukera izanen dute lakuntzarrek. Sukaldari irakasleak gainera euren erkideak dira. Dagoeneko 20 batek eman dute izena. Gastronomia Topaketan parte hartu nahi dute-

Egitaraua

Azaroak 8

Marokoko harira (haragi, tomate eta lekalez egindako zopa), pastila (usoaz edo oilaskoz, tipulaz, almendraz betetako hostopil gozo eta gazia) eta flana.

Azaroak 22

Euskal Herriko pintxoa, kokotxak eta intxaur saltsa.

Azaroak 29

Hego Amerikako sankotxoa (haragi, tuberkulu, barazki eta osagaiekin egindako zopak) eta arto kakinaoa.

Abenduak 13

Senegalgo oilaskoa fideoekin eta mazedonia.

nek <http://goo.gl/t8yE0J> helbidean eman behar dute izena. Dohainik da.

» Altsasu



Enpresen beharrak bertatik bertara

Horiek ezagutzeko alkateak Altsasuko enpresetara bisita erronda hasi du

Javier Ollo Martinezek Altsasuko enpresek dituzten eskakizunak eta beharrak zuzenean ezagutzeko lantegiak bisitatzeko erronda hasi du aste honetan. Alkateak gogora ekarri du finantza krisiagatik Altsasuko egoera ekonomiko larria pairatu duela eta horrek gogor jo duela industria arloa. Horren adierazle gisa Altsasuko

Sakanaren langabeziaren %49,1 izatea jarri du Ollok.

Horregatik, guztiagatik enprekin zuzeneko harremana izatea garrantzitsua jo du alkateak: "izan ere, enpresak dira aberastasuna sortzen duten agenteak eta zer esanik ez Altsasu bezalako herri batean, zeina iraganean gune industriala izan den, gauregun oraindik bada eta etorkizunean horrela jarraitu behar du, bestelako sektore ekonomikoak baztertu gabe".

» Altsasu

Larunbatean, indarkeria matxisten kontra

Iortia kultur gune parean kontzentrazioa egingen da, 12:00etan, Altsasuko Udalak deituta

Altsasuko Udalak bat egin du indarkeria matxisten kontrako estatu martxarekin eta bihar Madrilera joan ezin dutenendako Altsasun kontzentrazioa dei-

tu du. Hala erabaki zuen lastailako bilkuran. Ordu berean, Madrilan, bat egingen dute emakume eta talde feministek deitutako pertsonak, eta guztiak indarkeria matxistak salatuko dituzte. Aldi berean, indarkeria sexistaren kontrako borroka

lehentasunezkoa izatea eskatu dute. Gizarte zibilari martxan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diete, "indarkeria matxista eta emakumeen aurkako indarkeria guztiak desagerraraztea gizarte osoari baitagokio".

+www.guaixe.eus

»



Jendea asteazkenean egiten den azokan. ARTXIBOA

Udalak urtea despeditu aurretik euskaldunen errolda egitea erabaki du

Euskal Herrian Euskaraz-eko kideak pozik azaldu dira Udalak eta biok euskaraz dinamikak fruitua eman duelako

Altsasuko Udalak herriko euskaldunen errolda egiteko beharrezko aurrekontu aldaketa onartu zuen herenegun. Urtea despeditu aurretik egingen da. Euskara Batzordearen buru duen EH Bilduk bultzatuta egin zen ezohiko plenoa eta aurrekontu aldaketaren alde eta errolda aurten egitearen alde EH Bildu eta Goazen Altsasu agertu ziren. Geroa Bai abstenitu egin zen eta PSNk eta UPNk aurka bozkatu zuten.

Urte bat bete da Altsasuko Udalak Euskararen erabilera eta sustapena arautzen duen ordenantza onartu zuela. Bertan, besteak beste, altsasuarrek udalarekin euskarazko harremanak izatea bermatzen da eta, horretarako, udalak euskaldunen errolda osatuko duela erabaki zen. Beraz, onartutako

araudia garatuko du herenegun erabakiak.

Datozen asteetan, beraz, bi urte-tik gorako altsasuar guztiak galde-tegi bat iritsiko zaie etxera. Bertan, euskararen ezagutza maila, etxean gehien erabiltzen den hizkuntza eta euskara ikasitako tokia zein den zehaztu beharko dute. Horrela, hala eskatzen duten herritar euskaldunei euskara hutsezko komunikazioak bidaliko dizkie udalak. Bestalde, udalerrriaren egoera soziolinguistikoa buruzko informazioa eskuratuko da eta euskara sustatzeko programa, kanpaina, ikastaro eta jardueri buruzko informazioa bidaliko da pertsona bakoitzak duen euskararen ezagutza-mailaren arabera.

Dinamikaren fruitua

Udala eta biok euskaraz dinamika martxan jarri zuen pasa den urtean Sakanako Euskal Herrian Eus-

karaz (EHE) eragileak eta udalak hartu berri duen erabakia kanpainaren bidez eman zen altsasuarren aktibazioaren fruitu dela adierazi dute EHEtik. Udala herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa izanik hizkuntza politika egiteko eskumenak dituela gogorarazi dute EHEkoek. "Hori kontuan izanda, udalari euskaraz bizitzeko dugun nahia errespetatu, eta honekiko harremanak euskaraz izateko dugun eskubidea bermatzeko eskaria bideratu genion".

50 altsasuar baino gehiagok udalari euskarazko harremana nahi duela adieraziz, idatzi sinatuak aurkeztu zizkioten. Batetik, etxean eta kalean zein udalean altsasuarrek jasoko dituzten paper, ohar, bando, inprimaki, publikitate euskarri, lanpostu deialdi eta bestelako guztiak euskaraz izatea eskatu zuten, baita 012 telefonoko informazioa euskaraz izatea ere.



nc
nerea cenoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatu (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantenimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Asun Arnanz Zufiaurre

Une hauetan gure ondoan egon zareten guztioi, eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

Etxekoak



Jaione Anso Eguren

Edan ur garbia bizitzaren iturritik. Dastatu eguzkiaren argia zauden lekutik.

Azaroaren 8an, eguerdiko 12:00etan, bere aldeko meza ospatuko dugu Bakaikuko elizan.

Zure familia

Asun Arnanz Zufiaurre

Udazken koloretan, landen lurrinak zeharkatuz, hitaz oroit eta higan nauk, hain soil hire heriotzean, hain xume, adiorik gabeko partitzean.

Osaba Candi, Juancar eta Otalur etxekoak
2015-10-30



Daniel Ciordia

Zure ondoan beti errege eta erregin sentitu garelako.

Beti gure bihotzetan, Daniel.

Carreño-Mundiñano familia

Asun Arnanz Zufiaurre

Asun, azkarregi joan zara, zaratarik atera gabe, isiltasunez. Lagun bikaina izan zaitugu. Ikusi arte.



Altsasuko koadrila



Juan Francisco Oyarbide Araña

"Patxi"

I.urteurrena

Une oro gure oroimenean hago, asko botatzen haugu faltan.

Etxarriko kuadrille

Asun Arnanz Zufiaurre

Altsasuko Udal Musika eta Dantza eskola



Mikel Arregi Marin

XXXVI. urteurrena

Zure irrifarra zure alaitasuna, gure artean bizirik.

Zure familia

Lakuntzan, 2015ko azaroaren 11n.



guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€. Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Etxebizitza lursailarekin salgai Etxarri Aranatzen. 4 gela, 2 komun, sukalde-egongela, garajea eta 130 metro karratuko lursaila. Interesatuak deitu 676 92 71 65 telefonora.

ERRENTAN EMAN

80m2 duen etxebizitza alokatzen dugu Etxarri Aranatzen. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Altzariz horniturik. Garajea eta 30m2-ko lorategia barne. Tel 609 84 55 99.

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Lakuntzako Kale Txiki taberna alokagai. Tel: 630 62 47 71.

Opatutakoak / galdutakoak

OPATUTAKOAK

Betaurrekoak opatu dira Arbizuko Utzubar industriagunean. Graduatuak dira, Vogue marka eta moreak. Galdutuenak, mesedez, hots egin dezala 948 56 42 75 telefonora.

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta makilak: 19. Belarritakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

JAIOTZAK

- Anthuan Troy Quiñonez Tarira, urriaren 22an Altsasun.
- Anouar El Houndali Dahine, azaroaren 1ean Olaztin.

EZKONTZAK

- Kepa Cardenal Ezenarro eta Nerea Lizarraga Berastegi, urriaren 10ean Arbizun.

HERIOTZAK

- Jose Antonio Santamaria Herreros, azaroaren 1ean Altsasun.
- Manuel Mata Leon, azaroaren 3an Irurtzunen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.



GRUPO

Funeraria
VASCONGADA
Ehorzketak
TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

Pilota

Iñigo Aritza txapelketa aurrera

Aurrera doa Iñigo Aritza Pilota Txapelketa. Aurreko astean 2. jardunaldia jokatu eta gero, etzi, igandean, berraukerako partidak eta lagunarteko partidak jokatu dira, 17:30ean, ikastolako frontoian.

2. jardunaldiko emaitzak

LH3:

Aimar Igoa **18** - Oier Carabias **7**

LH4:

Oier Mitxelena **18** - Asier Astiz **2**

LH5:

Aimar Gracia **18** - Oier Gartzia **4**

Aimar Bengoetxea **16** - Eneko Andueza **18**

LH6:

Ekiñe Fernandez - Olatz Galarza (Ez zen jokatu, Ekiñe pasako da)

Oihan Guinea - Aritz San Roman (Ez zen jokatu, Aritz pasako da)

Amets Borreguero **18** - Amaiur Zubiria **5**

Jon Navarro **18** - Arkaitz Agirretxe **8**

DBH1:

Angel Vergara **18** - Unai Irigoien **13**

DBH2:

Izadi Reparaz **18** - Ioritz Agirretxe **8**

Igandekoa

Lagunarteko partidak

LH3:

Enaitz Gonzalez - Oier Carabias

Ainhitze Armentia - Haizea San Roman

Berraukerako partidak

LH4:

Kepa Amillano - Peru Urteaga

LH5:

Oier Gartzia - Aimar Bengoetxea

LH6:

Aritz Sevilla - Arkaitz Agirretxe

LH7:

Ane Ojer - Amaiur Zubiria

LH8:

Asier Solis - Ander Goikoetxea

DBH1:

Aritz Ulaier - Unai Irigoien

DBH2:

Patxi Arakama - Ioritz Agirretxe



Nafarroako Gazteen Lau t'erdia: Nazabal aurrera

Ramirez, Galartza eta Arbizu txapelketatik kanpo geratu dira

Aurreko astean hasi zen Nafarroako Gazteen Lau t'erdia - 18. Guillermo Mazo Memoriala. Aste honetan bigarren jardunaldia jokatu da, asteartean Etxararren eta asteazkenean Lekunberrin. Sakanako klubetako pilotariak ez dira oso fin ibili. Ramirez, Galartza eta Arbizu txapelketatik kanpo geratu dira, euren partidak galdu eta gero. Aldiz, Nazabal aurrera egin du.

Nafarroako Gazteen Lau t'erdia. Sakandarren emaitzak

Ruiz (San Sebastian) **18** - Ramirez (Pilotajauku) **5**

Cordon (Oberena) **18** - Galartza (Aldabide) **3**

Canabal (Oberena) **18** - Arbizu (Pilotajauku) **4**

Nazabal (Aldabide) **18** - Seminario (Oberena) **14**

Motoziklismoa

Halabeharrez motoetatik aldenduta

Alex Mariñelarenak (05-10-1992, Irurtzun) medikuen gomendioei jarraituko die eta motoetatik jaitziko da. Lehiari utziko dio baina ez ditu erabat motoak utziko, lagunartean eta dibertsioaz gozatzen segitzeko asmoa du.

Maialen Huarte Arano

Paul Ricard zirkuitua ez du erraz ahantziko pilotu irurtzundarrak. 2014an ezbehar larria izan zuen, Tech3 talde frantziarrarekin Motoziklismo Mundialerako Moto 2 mailan aritzeko entrenatzen ari zela. Astebete eman zuen istripuaren ondorioz koma induzitu. Errekuperazio luzea izan du, baina medikuek gomendatuta motoan lehiatzeari utzi beharko dio Mariñelarenak. Lehiari utziko ezgaitasuna duela esan diote. Erabakia hartzea ez da erraza izan, baina, akats txikiena izanda ere, kalte larriak eragin diezazkioke eta horren aurrean besterik egiterik ez duela izan uste du.

10 urterekin hartu zuen lehenengoz moto bat Mariñelarenak. Familiatik dator kio afizioa. Etxeko baje-ran beti ikusi ditu motoak. Haren aitona eta osabak gidatu izan dute motoa eta deigarriak egiten zitzaizkion txikitatik. Gogoan du lehen aldia moto gainean. Herrian hartu zuen lehenengoz osaba Carlosen laguntzarekin. Garai hartan soka batzuek lagunduta aritu zen, ez baitzen hankekin lurra ukitzera iristen. Berak gidatzeko papera hartu zuen osaba atzean zuelanola maneiatu erakusten: "Plazaolara igo ginen, pistetatik lehen aldiz motoan ibiltzera", ekarri du gogora. 2005ean lehiatu zen lehenengoz zirkuitu batean. Iruñeko Parke Polon izan zen. Lehenengo trofeoa ere han eskuratu zuen eta herrian egindako lasterketetan iritsi ziren hurrengoak. Lehen urte haiek lehiatzeaz baino gozatzeaz ardurtzen zela iritzi du.

Ibilbidea

"Ez da erraza izan goi mailara



Bere bizitzaren etapa berri bat hastera doa Alex Mariñelarenak.

iristea", dio. Bide gogorra egin behar izan du Mariñelarenak Espainiako eta Munduko maila gorenetan parte hartu ahal izateko. Baina bidez ere gozatzen jakin duela esan du. "Maila gero eta handiagoan egon, orduan eta lan handiagoa egin behar da", nabarmendu du. Fisikoki prestatzeaz gainera oso garrantzitsu jo du alboan jendea izatea babes ema-

ten eta baliabide nahikoak izatea aurrera egin ahal izateko. "Lehen urteetan ekonomikoki gurasoek eta oro har familiak lagundu dit, ondoren, zortea izan nuen enpresa pribatu batek laguntza eskaini zidalako eta aurrera egiteko aukera eman zidalako", esan du. Olaberria, Villacaryo (Burgos) eta Zuera (Zaragoza) izan ditu entrenamenduetarako zirkuitu. Los

Arcosekoa ere erabili du, baina gutxiago. Espainiako lehiari hasi zelarik oraindik eraikitzen ari ziren eta hortaz azken urteotan egin ahal izan ditu han entrenamenduak: "Los Arcoseko zirkuitua oso baliagarria da ni bezala motoetan aritzen garenontzat".

Bidaiatzeko aukera eman diote motoek

Herrialde ugari bisitatu ditu Mariñelarenak motoaren gainean. Espainiako erkidego askotan hartu du parte, Espainiako Abiadura Txapelketan eta Mundialean. Mundialean, Italia, Alemania, Frantzia eta bereziki Australia, Malasia eta Japonia ditu gogoan: "Beste errealitate asko ezagutzeko parada izan dut. Herrialde askotan kalean ikusitakoa ahaztea ez da erraza izanen". Malasian esaterako, aberats eta pobreen arteko aldea handia izanagatik ere, kalean elkarbizitza ohikoa da eta baliabide ekonomiko gutxi izanagatik ere irribarrea ahotik ez zailela ezabatzen dio. Iritsi gabeko lurraldeak ere baditu: Estatu Batuak eta Argentinara iritsi gabe amaitu da bere etapa. Motoekin lehiari ez da han ariko.

Albisterik garratzena

Lehiarik ez egiteko gomendioa jaso zuen duela hilabete gutxi Mariñelarenak. 2014an izandako istripuaren ondorioz, lehiari aritu eta beste istripu bat izateak ondorio larriak eragiten ahal dizkiola jakitean hartu du erabakia. Bere esku zegoen guztia egin du erreperatu ahal izateko, baina askotan nahia ez da nahikoa izaten. Goxokia eman eta gero, gabe gelditu denaren sentsazioa du. Gazi gozoa. Baina gaztetasunak aurrera egiteko indarra ez dio kendu. Lan bila ari da. Bere adineko beste gazte asko bezala. Bere bizitza berregite bidean da jada. Etapa bat itxi, beste bat zabaltzeko.

Mendi Txirrindularitza - BTT



Sakandarrek BTT ibilaldi bikaina egin zuten Suancesen. UTZITAKOIA

Suancesen bikain

Mank-ek eta Barranka Txirrindulari Taldeak Besayako Bide Berdean antolatutako BTT ibilaldia arrakastatsua izan zen oso

Sakanako Mankomunitateak, Barranka Txirrindulari Taldearen laguntzarekin, urriaren 25ean BTT ibilaldia antolatu zuen Suancesen. Zehazki, Suancesetik abiatuta Besayako Bide Berdea osatzea zen erronka (42,5 km), zailtasun ertain-errazeko ibilbidea. Mank-eko kirol teknikari Amaia Gerrikagoitiak azaldu digunez, "aspaldiko jendetsuena izan zen ibilal-

dia, eta oso polita". Ibilbidea osatu ondoren, txirrindulariek bertan bazkaldu zuten eta arratsaldean itzuli ziren Sakanara.

Suancesekoa Barranka Txirrindulari Taldearekin Mank-ek elkarlanean antolatzen duten urteko lehen irteera izan da. "Lehen bi izaten ziren, baina aurten maiatzean jarduera berria egin genuen Altsasun, BTT ibilbidea, jolasak eta jostailuen trukea, eta honela jarraitzeko asmoa dugu datorren urtean ere" gaineratu du Gerrikagoitiak.

Mendi lasterketak

I. IZAGA TRAIL

Beraza bosgarrena, Noveleta zazpigarrena eta Katarain bederatzigarrena



I. Izaga Trail lasterketako irteera.

Mikel Rubio hirugarrena sailkatu zen promesen mailan

Igandean jokatu zen, Alzorriren, I. Izaga Trail mendi lasterketa aldi berean Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa izan zena. Korrikalariak bi distantzia izan zituzten aukeran: 26,3 km-koa eta 11,2 km-koa. Kasualitatez, bi probatan korrikalari kopuru berbera klasifikatu zen: 149.

Proba luzean Julen Martinez de Estibariz gasteiztarra (2:33:09) eta Maider Fraile (3:09:45) gailendu ziren. Sakandarrak ongi aritu ziren. Lehen 10 postuetan hiru sakandar sailkatu ziren. Jose Luis Beraza uhartearra bosgarrena izan zen helmugan (2:39:14), probako lehen betaranoa. Evaristo Noveleta irurtzundarra zazpigarren sailkatu zen (2:45:52) eta Beñat Katarain lakuntzarra bederatzigarren (2:49:23). Mikel Rubio 21. pos-

Sakandarrak I. Izaga Traillean

26,3 km (1855 m D+)

1.	Julen Martinez de Estibariz (Gasteiz)	2:33:09
5.	Jose Luis Beraza (Uhar.)	2:39:14
7.	Evaristo Noveleta (Irur.)	2:45:52
9.	Beñat Katarain (Lak.)	2:49:23
21.	Mikel Rubio (Irur.)	3:05:40
34.	Joxeja Maiza (Etx.)	3:09:52
53.	Nourdine Jdi (Lak.)	3:22:10
62.	Ander Unzurrunzaga (Etx.)	3:27:02
83.	Gorka Arratibel (Etx.)	3:39:42
133.	Jose txo Albizu (Irur.)	4:12:58

11,2 km (790 m D+)

1.	Alberto Azparren (Aibar.)	52:44
5.	Francisco Codon (Irur.)	55:59
13.	David Mutiloa (Irur.)	1:00:18
95.	Fco. Jose Juango (Irur.)	1:15:10
100.	Miren Zubietta (Irur.)	1:16:24

tuan sailkatu zen, promesen mailan hirugarrena.

Bestalde, proba laburrean Alberto Azparren (52:44) eta Igoñe Campos (1:06:57) izan ziren txapelkunak. Francisco Codon izan zen lehen sakandarra, 5. postuan sailkatu eta gero.

Atletismoa

51. Behobia-Donostiarako dena prest

33.948 korrikalari daude izena emanda

Donostiako Fortuna Kirol Klubak igandeko 51. Behobia-Donostiarako (20 km) dena prest dauka. 33.948 korrikalari daude izena emanda, aurreko urtean baino 4.000 gehiago, eta emakumeen parte hartzearen igoera nabarmendu dute. %22,69 dira emakumeak.

2014an 96 sakandar

Euskaldunak dira gehienak, baina katalanak (5.400) eta madrildarrak (3.130) asko dira, eta baita espainiar eta frantziar estatuetakoa beste herrietatik etorritako korrikalariak ere. Jakina, tartean daude sakandarrak. Aurreko urtean 96 sakandarrek osatu zuten proba.

Iganderako beroa iragarri dute, 19 eta 24 gradu arteko tenperaturak, eta "behar beste hidratatze-

Ordutegia

Larunbatean
15:00etan: Behobia Txikia (Estadioan).
Igandean
9:30ean: Gazte lasterketa (Herretatik, 4,4 km, 220 gazte)
9:30ean: Behobia, handbikeak eta gurgildun aulkiak (48)
9:35ean: Behobia, irristalariak (233 irristalari)
10:00etan: Behobia-Donostia (19 irteera mailakatu, azkena 11:35ean)
***Ostiralean (12:00etatik 21:00etara) eta larunbatean (10:00etatik 20:00etara) Korrikalarien Feria Anoeta Belodromoan.**

ko eta zentzuz korrika egiteko" deia egin dute antolatzaileek.



Beunza hirugarrena eta Audikana laugarrena Forteko lasterketan



3.618 korrikalari aritu ziren larunbat gaeen Iruñeko Gotorlekuan jokaturako Iruñeko Harresien hiru lasterketan, tartean 49 sakandar

Arrakastatsua izan zen larunbat iluntzean jokaturako Iruñeko Harresien Lasterketa. Hiru proba jokatu ziren: Harresien Lasterketa (20 km), Gotorlekuko Lasterketa (10 km) eta Forteko Lasterketa (6 km). Guztira 3.618 korrikalari lehiatu ziren, tartean 49 sakandar.

Antonio Etxeberriak irabazitako Harresien Lasterketan Mikel Perez de Eulate izan zen lehen sakandarra, 36.a. Aldiz, Javier Nagore gailendutako Gotorlekuko Lasterketan Gorka Perianez izan zen lehen sakandarra, 282.a. Bukatzeko, Forteko Lasterketa Atarrantze Rotak irabazi zuen eta lehen sakandarra Raul Audikana izan zen, laugarren postuan. Izaskun Beunza olaztiarra hirugarren emakume onena izan zen.

Sakandarrak Harresien Lasterketan (20 km):

1.	Antonio Etxeberria	1:06:29
36.	Mikel Perez de Eulate	1:22:27
57.	Fernando Ganuza	1:25:59
72.	Adolfo Lopez	1:28:20
131.	Asier Palacios	1:33:18
227.	Esteban Tejedor	1:40:29
251.	Migel Ubeda	1:42:38
336.	Nicolas Fernandez	1:50:30

Sakandarrak Gotorlekuko Lasterketan (10 km):

1.	Javier Nagore	33:22
282.	Gorka Perianez	46:20
483.	Mario Pazos	49:17
538.	Carlos Manero	50:17
545.	Alberto del Rio	50:21
733.	Mikel Tainta	52:10
807.	Iñigo Hernandez	53:00
854.	Unai Gorospe	53:37
908.	Victor Isturiz	54:03
977.	Beatriz Arguelles	54:56
1035.	Eva Duran	55:16
1064.	Xabier Ramirez de Alda	55:28
1074.	Erik Gonzalez	55:31
1452.	Leire Mujika	59:08
1489.	Tiscar Curan	59:30
1544.	Erkuden Aiala	1:00:18
1553.	Alejandro Aiala	1:00:26
1578.	Maitte Duran	1:00:48
1590.	Javier Rivero	1:01:00
1894.	Claudia Cardas	1:06:44
1906.	Norma Legarra	1:07:13

Sakandarrak Forteko Lasterketan (6 km):

1.	Atarrantze Rota	19:44
4.	Raul Audikana	20:00
14.	Alatz Agirre	21:34
34.	Isidro Asurabarrena	23:10
39.	Julen Paniagua	23:36
43.	Izaskun Beunza	23:42
49.	Alfredo Amillano	24:00
64.	Joseba Juango	25:06
172.	Iñigo Urteaga	29:34
173.	Erkuden Urteaga	29:34
259.	Irati Lopez de Goikoetxea	31:21
261.	Oihana Gartzandia	31:22
381.	Iñigo Etxaniz	33:51
419.	Migel Angel Asurabarrena	34:20
438.	Eider Carrion	34:31
500.	Marijo Arza	35:37
501.	Jon Ander Borrega	35:37
570.	Ekaitz Gartzandia	36:16
571.	Eva Reyes	36:16
572.	Rakel Fernandez	36:16
733.	Jose Angel Murugarren	37:50
735.	Nuria Sarasa	37:50
952.	Leire Solano	40:59

Futbola

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa
 8. JARDUNALDIA

ETXARRI ARANATZ 3 - BERRIOZAR 0
LAGUN ARTEA 1 - ARROTXAPEA 3
 Etxarri liderrak goitik behera dominatu zuen Berriozarren kontrako partida. Mikelek eta Xabatek sartu zituzten Etxarriren lehen bi golak. Etxarri jokalaria bat gutxiagorekin geratu zen, baina aukerak sortzen jarraitu zuten jokalaria etxarriarrek eta Xabatek hirugarren gola sartu zuen.
 Lakuntzan, aldiz 1 eta 3 irabazi zion Arrotxapeak Lagun Arteari. Baxa asko zituen Lagunek, eta nabaritu zen. Bi gol sartu zituen Arrotxapeak eta nahiz eta Berastegik Lagun 1 eta 2 hurbildu, Arrotxapeak hirugarren gola sartu zuen eta horrela despeditu zen partida.

Sailkapena >>

1.	Etxarri Aranatz	18 p
9.	Lagun Artea	10 p

Asteburuko jardunaldia

BERIAIN - ETXARRI ARANATZ
 (Igandean, 16:00etan, Beriainen)
LAGUN ARTEA - AUERRERA
 (Igandean, 15:30ean, Zelai Berrin)

ERREGIONAL MAILA. 3. multzoa

ALTSASU 0 - LEZKAIRU 1
 Dominatzen saiatu zen Altsasu, baina Lezkairu izan zen gola sartu zuena. Altsasu saiatu zen, baina baloiak ez zuen Lezkairuren atean sartu nahi eta hiru puntuek Dantzelekutik egin zuten ihes.

Sailkapena >>

1.	Doneztebe	24 p
9.	Altsasu	8 p

Asteburuko jardunaldia

MUTILBERA - ALTSASU
 (Igandean, 20:00etan, Mutiloan)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

B MULTZOA. 1. FASEA. 7. JARDUNALDIA

EGIARRETA 3 - OROBIA 1
ZALDUA 0 - BERIAIN 4

Sailkapena >>

1.	Berain	19 p
2.	Egiarreta	12 p
5.	Zaldua	6 p

Asteburuko jardunaldia

EGIARRETA - BIDEZARRA
ENERIZ - ZALDUA (Atzeratuta)

Futbola

Kimuen Futbol 8 Topaketak

Igandean 3. jardunaldia jokatu da Altsasun eta Urdiainen

Sakanako Man-komunitateak antolatutako Kimuen Futbol 8 Topeketa 3. jardunaldia jokatu da igande goizean Altsasuko Dantzalekun eta Urdiaingo Aitziberren. Aurten Sakanako 9 talde ari dira lehiatzen. Topaketa txapelketa moduan jokatu da baina ez da sailkapenik egingo, helburua txikiengana kirola eta futbola sustatzea baita. Guztiek ongi pasatzea eta txikiengana futbolarekin gozatzea da asmoa.



Kimuen Futbol 8 Topaketen 3. jardunaldia

Igandean, Altsasun
11:00etan: Sutegi - Dantzaleku
11:00etan: Lagun Artea - Kaixo
12:00etan: Etxarri Aranatz - Tipi Tapa
Igandean, Urdiainen
12:00etan: Urdiain - Mediolanum

Areto futbola

El Pozoren kontrako garaipen historikoa

Magna Gurpeak 2 eta 4 hartu zuen menpean Murtziako talde ahaltzua eta laugarren postura igo da

Lehen mailako ligako oilar baten kontra gailendu zen Magna Gurpea Xota ostiralean. Imanol Arregiren mutilek 2 eta 4 irabazi zituen Murtziako El Pozori. Magna Gurpeak partida irabazteko ilusio eta gogoak izan zituen uneoro eta talde ahaltzuariez ederra eman zion. El Pozo hotz aritu zen, ideiarik eta ilusiorik gabe.

Victorrek aurreratu zuen talde berdea, 7. minutuan. Berdintzea lortuzuen El Pozok, Yoshikawakate propioan sartutako zorigaiztoko jokaldi batean. Imanol Arregiren mutilek ez zuten behera egin eta Eserverrik 1 eta 2koa sartu zuen. Penalti zalantzarri bati esker bina berdinduzuen El Pozok. Saldisek hiru-

garrena sartu zuen eta nahiz eta El Pozo berdintzen saiatu, ezin izan zuten, Magnako Raulatezain bikain aritu baitzen. Hain zuzen ere Raullek sartu zuen Magna Gurpearen laugarren eta azken gola.

"Oso ongi planteatu dugu partida. Pista oso konplikatua irabazi dugu, El Pozo baino gehiago izan gara eta oso kontentu goaz etxera" adierazi zuen Imanolek.

Jumillaren kontra

Inter Movistar da lehen mailako liderra (25 puntu). Jarraian lau garaipen lortu eta gero, laugarrena da Magna Nafarroa (16 puntu). Bihar, larunbatean, Magna Gurpeak sailkapenean azkena den Jumilla hartuko du Anaitasuna pabilioian, 18:30ean. Ea garaipenek segida duten.

Automobilismoa

Garikoitz Flores bigarrena VI. Agiña Igoeran

Arkaitz Ordoki txapelkunarengatik segundo eskas batera sailkatu zen lakuntzarra. Garikoitz Goñi lehena izan zen bere mailan

Larunbatean VI. Agiña Igoera jokatu zen Lesakan. 53 ibilgailuk hartu zuten irteera, baina horietatik lauk proba utzi behar izan zuten. Pilotuek lehia estua izan zuten eta azkenean Arkaitz Ordoki (Silver Car) izan zen azkarrena Agiñako maldetan gora (2:41.232). Segundo eskas bat aterazion Garikoitz Flores lakuntza-

rrari (BRC, 2:42.556). Podiumean hirugarrena Fernando Egozkue izan zen (Silver Car, 2:46.397).

Gainontzeko pilotu sakandarrak ere ongi ibili ziren. Azkenaldian izandako arazo mekanikoak gaititu zituen Garikoitz Goñi etxeberriraketa 18.a sailkatuzen (Megane, 3:09.351), bere mailan lehenengoa. Andoni Lopez de Sabando 34.a sailkatu zen (BMW 320i, 3:20.908) eta Mikel Mendiñeta 37.a (205 GTi, 3:22.613).



Agiñako igoerako podiuma, Flores eta Goñi tartean.



III. Rallysprint Olazti-Urbasa prestatzen buru-belarri dabil Sakana Motorsport

Azaroaren 21ean izanen da, Olaztin, 14:00etatik aurrera

Urriaren 3an jokaturako Urbasa-ko Igoeraren motor hotsak oraindik ere gertu daudela, Sakana Motorsport taldea Olaztiko hurrengo motor festa izango dena prestatzen dabil. Izan ere, azaroaren 21ean jokaturako da III. Rallysprint Olazti-Urbasa, Olaztiko kale-etan barna. Proba antolatzeko Nafarroako Automobilismo Federazioaren, Olaztiko Udalaren, Mai-

suenea gaztetxearen, Bierrik fundazioaren eta hainbat laguntzaileren babesa izanen du Sakana Motorsportek. Olaztiko Rallysprintak hurrengo lasterketarako puntuatzen du: Nafarroako Pilotu eta Kopilotuen Rallye Txapelketarako eta Nafarroako Pilotu eta Kopilotu juniorren Rallye Txapelketarako.

Ibilbidea aurreko urteetako izanen da. Olaztiko kale, txoko eta errepideetatik barna 5,5 km-ko

zirkuitua prestatu du antolakuntzak, eta lau itzuli egin beharko dituzte autoek.

Izena ematea azaroaren 13ra arte

Parte-hartzea sustatzeko antolatuzaileek inskripzioa merketu dute. Ibilgailu bakoitzak 100 euroko inskripzioa ordaindu beharko du. Izena ematea zabalik dago azaroaren 13ra arte, www.fotomotor.es web gunean.

Onddoaren astea



Arkangoa: Mendia eta haizea



Osagaiak:

Erregosia, onddo apar eta airearekin.

Gautxori: Onddo dorrea



Osagaiak:

Ahatez eta onddoz betetako pasta.

Koxka: Udazkeneko koloreak



Osagaiak:

Masaila, foie eta sagar karamelizatua.

Lezea: Onddo ravioliak



Osagaiak:

Onddoak, foie, purea eta Pedro Ximenez.

Urtzi: Hongo Mole



Osagaiak:

Onddoak, bakailao brandada eta patatak.

Xume: Goi-onddo



Osagaiak:

Onddoz betetako alberjina eta bakailaoa.

AMAMA FILMA ALTSASUN: Hilaren 13an, 22:00etan, eta 15ean, 20:10ean, Amama filma ikusteko aukera izanen da Altsasuko lortia kultur gunean. Asier Altunak zuzen-

dutako euskarazko filma Tuter eta Montpellierren saritua izan da. Sarrerak dagoeneko salgai daude.

Industria-ondarea Arnanzen pintzeletik

Atzotik abenduaren 7ra arte ikusgai dago, astelehenetik larunbatera 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Koldo Arnanz Zufiurre margolariaren *Keinu bat iragan industrialari* erakusketa ikusgai dago Iruñeko Kondestable jauregiko erakusketa gelan. Margolari altsasuarrek zintzilikatutako obretan lantegi zaharren egiturak, aurriak, ikusgai daude. Arnanzek azaldu digunez, "haiekiko interesa txikitatit dut". Aita lanean "laguntzera" joaten zenean fabriketan sartu eta zoko-moko guztiak begiratzea gogoko zuela azaldu digu. Txikitatik hiri egiturekin, testura zaharrekin gustura sentitu dela azaldu digu, baita enpresetako tximiniekin "flipatzen" zuela.

Deskonektatzeko beste gauza batzuk egiten baditu ere, Arnanzek proiektuak lantzen ditu. Lehenik *Ibai ertzak* izan ziren. "Alde batetik, errespetua ematen dute eta, bestetik, argia islatzen dute eta erakargarriak dira". Ondoren Castillo Suarezren *Mugarri Estaliak*



liburuan oinarritutako proiektua landu zuen. Eta hura despeditzean heldu zion proiektu honi.

Erakusketaz

Iruñean altsasuarraren tamaina handiko dozena bat koadro eta ertaineko 17 daude ikusgai. Handiak teknika mistoarekin eginak daude. Gehienetan olioia sartu du

eta harekin jolastu du. Collageak ere badira. Koadroertainak berriz paper gainean grafito sortuak dira. Guztien abiapuntua argazkiak izan dira.

Arnanzen erakusketa hilaren 14an Iruñean egingen den I. Industria-ondareari buruzko sinposiaren osagarria da. 2016rako aurreikusia zegoen baina aurreratzea proposatu zioten eta egoki jo zuen sortzaileak.

Arte Azoka bukatzeaz

Igandera arte 34 sortzaileen lanak Altsasuko lortia kultur gunean ikusgai daude

ARTebide elkarteak antolatutako IV. Arte Azoka atean ixter da. Gaur eta igandean izanen dira erakusketa ikusteko azken egunak. Iortia kultur gunetik pasatzen direnek 26 sakandarren eta 8 artista gonbidaturen lanak ikusteko aukera izanen dute. Pintura, eskultura, argazkia, zeramika, instalazioak, irudi digitala, collagea, bideoa eta abar daude ikusgai.



Judutar eta euskal folk ametsak

Melech Mechaya eta Anne Etxegoien Irurtzango folk ametsetan zikloaren barruan ariko dira

Bieganaldikosatuko dute aurtengo Folk Ametsetan zikloa, bihar eta hurrengo larunbatean Irurtzango kulturetxean gozatzeko aukera izanen dena. Melech Mechaya taldeak klezmer musika (Europa erdialdeko musika judu tradizionala) ekarriko du bihar, 20:00etan. Musika estilo horretan Portugalgo taldeonenada Irurtzuna heldu den boskotea.



2006tik lau disko karrikatuak dituzte. Azkena, *Gente estranha*, aurkeztera etorriko dira Irurtzuna. Euren ibilbidean sorterrian eta atzerrian oihartzuna lortu du taldeak. Haienak emanaldi dibertigarriak omen dira.

Zikloa osatzeko, heldu den larunbatean, Anne Etxegoien donapaleutarra izanen da Irurtzunen. Lau disko atera ditu: bi bakarlarigisa eta beste bi Aizkoa gizonezko abesbatzarekin. Donejakue bidearen ingurukolan bat prestatzen hasia da.

Musika hitzordu bikoitza Larrazpin



Gaur, 23:00etan, kontzertua eta bihar, 22:30ean, V. Larrazpitek

Arbizuko Alerta Gorriaren punk oi-a entzuteko aukera izanen da gaur Irurtzango gazte elkarteetan, 23:00etatik aurrera. Haien ondoren Lekeitioko Pornox taldearen metalcorearen txanda izanen da. Apirilean Irurtzunen izan zen gazte martxako kontzertuan jo zuten herrian ere Pornoxkoek. Gaur despeditzeko Jon Gotzon

Ugalde Gurrutzaga edo Dj Bull izanen da dantzarako doinuak jarriko dituen.

Larrazpitek musika elektronikoaren jaialdi irurtzundarrak bost urte beteko ditu aurten. Nazioartean aritua den David Meiser disko-jartzaile aragoarra da kartel burua. Berarekin batera Larrazpiko eszenatokitik pasako dira: The Outlier, Aseptik Noiz, Editer & Gordon, Sokra eta Xabi the butcher.

Emakidaren irratia

FLORES S.L.

Nafarroako berezko txistorrak izen bat du

Txistor ekologikoa

Uztuzar industrialdea - Rf. - Faxa: 948 460 499 - 606324

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

Rockabilly doinuak Altsasun

Gaur, 23:00etan, Altsasuko Arkangoa tabernan

Transistores 50 talde donostiarra, edo bestela esanda, Jimmy Yarza (gitarra eta ahotsa) eta Juanjo Erentxun (kontrabaxua eta koroak) bikoa Arkangoa tabernan ariko da gaur. Pop melodikoko ukitua duen rockabillya egiten du Transistores 50k. Zuzeneko bizia dute. Taldearen izen bera duen diskoa dute kalean.

Feria bat, 46 ikuspegi

XXX. Altsasuko ferietako rallyko lanen proiektzioa larunbatean, 19:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean

Altsasuko ferietan argazki kamera magalean zuten 46 argazkilaria batera eta bestera aritu ziren. Altsasuko Mendigoizaleak taldeak emandako gaiei buruzko argazkiak atera zituzten. Biharko sari banaketan argazki rallyko lan guztiak ikusteko aukera izanen da. Astelehenetik aurrera Altsasuko Dendarien Elkarteko erakusleihoetan ikusgai izanen dira.

Lazkoz Iruñeko Bertsoaroan

Nafarroako Bertsozale Elkartek Iruñeko Udala-ekin batera antolatzen duen zikloa da Bertsoaroa. Las-tailaren 22an hasi eta heldu den osteguna bitarte bertsoarekin lotura duten zazpi emanaldi izanen dira. Esaterako, asteartean

bertsolari gazte nafarren saioa izan zen Kondestable jauregian. Joseba Andoni Beltza izan zengai jartzailea.

Heldu den ostegunean aurten-go zikloa despeditzeko bertso saioa izanen da. Aimar Karrika, Ander Fuentes "Itturri", Amets Arza-

llus, Uxue Alberdi, Jon Maia eta Eneko Lazkoz bertsolariak ariko dira Alaitz Rekondok jarritako gaien gainean. Iruñeko Gurutze-ko Plazako institutuko areto nagusian izanen da saioa, 20:00etan, eta dohainik. Gonbidapenak ordu bat lehenago banatuko dira.



Nonerabili

VIZU ILEAPAINDEGIA

ITURMENDI

30€ko gastuarekin, %10eko deskontua.

ALDASORO HARATEGIA

ALTSASU

30€ko erosketa batengatik etxeko produktua opari.

ALFA INMOBILIARIA

ALTSASU

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100€ko txeketa opari.

KIXKUR ESTETIKA ZENTROA

ZIORDI

30 €ko gastuarekin %20eko deskontua produktuetan.

IORTIA HORTZ KLINIKA

ALTSASU

%10 aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Azterketa doan.

JULENE KORTSETEGI ETA LENTZERIA

ALTSASU

%5eko deskontua 50 €tik gorako erosketetan.

JON CORDON TAXIA

IRURTZUN

%10eko deskontua.

JAVIER AIZPUN HARATEGIA

UHARTE ARAKIL

50 €ko erosketetan, etxeko produktua doan.

UHARTE GAZTA

UHARTE ARAKIL

40 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

BERGARA CENTRO OPTICO

AGURAIN

Graduatutako eta eguzkitako betaurrekoetan % 10eko deskontua.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



Unanuak bideoklip berria zuzendu du



Izaki Gardenak taldeak *Aurri gara* diskoa aurkeztu zuen astelehenean, hirugarrena. 9 kantuz osatutako lana da eta *Hibernazioa* kantua aukeratu dute single modura. Haren bideoklipa Xabier Unanuak zuzendu eta muntatu du. Boskotea Arbizuko eko-kanpinera ekarri zuen

duela bi aste eta han eta inguruetan grabatu zuen bideoa. Izaki Gardenak taldearen eta Unanuaren arteko erlazioa aurretik heldu da. Boskotearen bigarren diskorako, *Amaieratik hasi*, *Berandu* bideoklipa egin zuen sortzaile irurtzundarrak.

+www.guaixe.eus

Ekonomia komedia

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean



Nobleziaren pare agertu nahi duen eta ekonomikoki itota dagoen burgesia zigortzen duen komedia da Acronimaren *Bancarrrota*. Ramon Pantaleon larru-saltzaile zaharrak, jokoak eta beste-lakoetan arituz, negozioa hondoratu du. Zordunei pagatu gabe utzi ondoren negozioa berrabiarazteko finantza plana martxan jarriko du Bernardo Capdevilla notarioaren laguntzaz. Azkar batean, atzera ere,

hondoa joko du Pantaleonek, maitalearen iruzurratigatik eta ingurukoek lapurtzen diotelako. Makina-zio gehiago izanen dira. Gaur eguneko istorio bat dirudien arren, Carlo Goldoni italiarrak orain dela ia 300 urte idatzi zuen obra.

Iruñeko Gaiarre Antzokiak eta Nafarroako Gobernuak antolatutako 2015eko proiektu eszenikoan Gaiarre Saria irabazi du Acronima produccionesen antzezlanak.

Objektuak bizi, eta bizia bidaiak

Larunbatean, 19:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean eta domekan, 17:00etan, Olatzagutiko kultur etxean



Keinu antzerkia, mugimendua, objektu eta popin antzerkia, maskara eta arte plastikoak. Eszena-hizkuntza nahasketa bat azken finean da La llave maestra konpainiak *Nómadas* ikuskizunarekin eskaintzen duena. Horretarako lehengaiak biltzeko materialak eta eguneroko objektuak dira: poetikoetan mailetak, kartoizko kaxak, kutzak eta plastikozko biribilkiak.

Eduarne Rankinek, Patxi Larreak eta Aintzane Baleztenak gor-

puztutako pertsonaiek lehengai horiek maskaretan, mugitzen diren etxeetan edota animalia fantastikoetan bihurtuko dira. Guztia zentzumenei, irudimenari eta norberaren baitan bidaiatzeko dagoen desirari zuzendutako ikuskizun batean. +www.guaixe.eus

bazterretik

Iosu Lizarraga

Aplikazioen munduan nabigatzen II

Cámara FV-5

Kamara Reflex baten kontrol manual tipikoak mugikorraren kameran zure esku izango dituzu aplikazio honekin. (Doan/2,99€).

Carousel

Dropbox, hodeian artxiboak gordetzeko zerbitzua sortu zuen enpresak eginiko galeria aplikazioa. Forma azkar, politetaezberdinean zure telefono eta dropboxeko argazki edota bideoak ikusteko aplikazioa. Flash-back-akerakustendizkizu argazki eta bideoen urtebetetzeetan. (Doan).

Pixlr

Argazki editore indartsu, azkar eta erraza. 2 milioi baino konbinazio gehiago lortu dezakezu argazki bakoitzerako. (Doan).

Amber weather

Eguraldiko widget oso ikusgarria,

diseinu asko erabiltzeko aukera ematen dizu, Material Design* barne. Aplikazioaren parte asko aldatzeko aukera du. (Doan).

Minima Wallpaper

Pantailako atzealdeko irudi mugikorrek. Diseinu asko erabiltzeko aukera ematen dizu, Material Design* barne. Pantaila zapaltzean, erantzun moduan, irudia mugitzen da. (Doan).

Month

Egutegiko widget oso ikusgarri eta erabilgarria, diseinu asko erabiltzeko aukera ematen dizu, Material Design* barne. (Doan).

Kent

Ikono pack berezi eta ikusgarria. Hexagonoz eginiko Material Design* ikonoak. Mugikorreko itxura gutziz aldatzeko. (Doan/1,15€)

Alpify

Kirola egiten dutenendako aplikazio oso gomendagarria. Aplikazioa piztean zure lokalizazio gps-a gor-

detzen doa, egiten ari zaren ibilbidearekin. Larrialdi bat baldin baduzu, aplikazioan botoi bat zapatzean edota 112ra deitzean, automatikoki zure ibilbidea 112ra bidaltzen da alerta batekin eta komunikazio bat hasten du. Gainera, aplikazioan bi kontaktu zerbaki sartzeko aukera duzu, familiarrak gomen-dagarri. (Doan)

Heart Rate

Runtastic, kirola aplikazioak egiten dituen enpresa handienetarikoa sortutako aplikazioa. Zure mugikorrak kamara eta flasha badu, aplikazio honekin eta zure hatzarekin, pultsoa neurtu eta memorizatu dezakezu. Dohainik dena, egunero hiru neurtu egiteko aukera ematen dizu. (Doan/1,99€).

7minute

Zazpi minututan edozein lekutan kirola egiteko aplikazioa. Intentsitate altuko zirkuituetan oinarrituta. 30 segundotako 12 ariketetan

banatuta, tartean 10 segundoko deskantsuak dituzten zirkuituak. (Doan).

IVONA Text-to-Speech HQ

Mugikorreko TTS ahotsa (Text-to-Speech, ordenagailu antzaduen ahotsa) naturalago batera aldatzen duen aplikazioa, 7 minute aplikazioa erabiltzeko gomengarria. (Doan).

Musixmatch

Abestien letren munduko katalogorik handiena, mugikorrean abesti bat entzutean, aplikazioa automatikoki ireki eta letra automatikoki sinkronizatzen da, pantailan irakur ahal dezazun. (Doan).

Passwallet

Papera erabiltzeari agur esan! Zure passbook kupoiak aplikazio honetan gordeta eta ordenatuta izan, hegazkin edota trenerako txartelak, kontzertuetarako sarrerak... (Doan). *Android 5.0 Lollipop bertsioan, Material Design sartu zuten, diseinu moderno, kolore lauekin eta trantsizio berriekin.

G

asteko >> : eguraldia

	ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 10%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 15%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 10%	euria: 18%
Min: 12 Max: 21	Min: 13 Max: 20	Min: 12 Max: 18	Min: 9 Max: 17	Min: 7 Max: 18	Min: 7 Max: 17	Min: 7 Max: 17	Min: 8 Max: 15

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m²
Irurtzun	23	9.5	14.5
Etxarri A.	21.6	8	12.1
Altsasu	20.5	8.5	11.9
Aralar	13.5	4.5	13.3
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

	ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
	11	19	25	3

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide sarituak

- 1.- **Maitane Aystaran**
(Etxarri Aranatz)
- 2.- **Joaquin Ma Anso**
(Etxarri Aranatz)
- 3.- **Arbizuko Ekokanpina**
(Arbizu)
- 4.- **Patxi Urrestarazu**
(Etxarri Aranatz)

>> 11 galdera

Ursula Unanua Lizarraga

100 urte bete ditu

Testua: Maider Betelu Ganboa



Adi eskaintza bereziei!

948 562 107
948 564 275

web orria

des kon tuak

astekaria

irratia

Publizitatea egin!

GUAIXE

publizitatea@guaixe.eus | publi@guaixe.eus

1. Ursula Unanua Lizarraga. Ergoendarra goitik behera!
 Bai, Dorraoko Agotzarnekuen jaioa eta Lizarragara Patxiko Aristorenarekin Beheko Albeittene-kua etxera ezkondu. Ergoiena gurea zela esaten zigun idazkariak. Ursula izena ere ez da oso entzuna. Gaztetan Donostian zerbitzatzen nengoela Los Abastose-ra joan nintzen kartilla berritza-
 ra eta esan zidaten gaztelaraz: "Ursula? Igeldoko tximinoaren izena da eta. Horrela koneska jatorra izen horrekin..." Hitzik gabe geratu nintzen.

2. Gazte joan zinen zerbitzatza?
 Aita hil zen nik hiruzpalau urte nituela. Haur txiki bat nintzela Iturmendira joan nintzen, haur txiki bati kasu egitera. Haurra negar eta ni negar, biak gosez, eta etxera itzuli nintzen. Txikitzen ere Dorraun etxeetara joaten nintzen soroetan lan egitera. Beranduago Donostiara zerbitzatza joan nintzen. Baina 1936ko San Pedro bezperan abisatu zuten ama hil zela eta etxera joateko.

3. Zein gogorra, ez?
 Bai. Nik 17 urte izango nituen. Eta berehala gerra hasi zen.

4. Gerra Zibila tokatu zitzaizuen...
 Bai, ama hil, gerra hasi eta nire bi anaiak gerrara deitu zituzten. Ni eta nire ahizpa geratu ginen etxean, bakarrik. Azienta guztiak gobernatzengentuen biak: ardiak, idiak, behiak, txerriak... denetatik genduen, eta gero soroak. Basora joaten ginen, txerrietara... Urte gogo-

rrak izan ziren, bakarrik genduen, lan askorekin. Baina ez genuen gosea pasatu, labore asko biltzen genituelako. Ogi eskeez ginen arrazionamendura joaten, etxean bage-nuelako.

5. Eta gerra bukatzean, zer?
 Anaiak etxera etorri ziren. Anai zaharrena San Pedro bezperan, eta gazteena ondoren. Beranduago zerbitzatza joan nintzen, Bilbo-
 ra eta beste toki batzuetara.

6. Eta ondoren ezkondu zinen.
 Bai, eta Lizarragara joan nintzen. Aitaginarreba, amaginarreba eta senarraren anaiak ere bizi ziren etxean. Senarra kisuskiltzan ibiltzen zen eta Etxarritik deituzieten Parkelitas fabrika egiteko. Obra bukatutakoan esan zieten ea fabrikan lan egin nahi zuten, eta han egin zuten lan senarrak jubilatuta.

7. Eta zu etxean lanean.
 Bai. Ni lan eta lan, azientarekin ibiltzen nintzen, mendian, soran eta denetan. Esaten zidaten ez zegoela gizonik nik bezala bi behi parerekin horren ilera zuzena egiten zuenik. Gero, jaietan aste guztiko arropak garbitzen nituen. Behin aldamenekoak labadora erakutsi zidan. Aitaginarrebari kontatu eta hark Etxarriko Kattolikori esan zion guri labadora ekartzeko. Ze aurrerapena! Niretzat aurrerapen onenak labadora eta traktorea izan dira. Traktorea ekarri genuenean gutxiagotan joaten nintzen sorora.

8. 100 urte hauetan zer izan da

gogorrena? Eta onena?
 Gogorrena gerra garaia. Eta politena? Senarrarekin motoan joaten ginenean. Lizarrara joaten ginen, ahizpa bisitatza...

9. Noiz bete zenituen 100 urteak?
 Urriaren 21ean. Goizean Lizarragako andreak Aurora kantatu zidaten. Karrika guztiarendako txokolatea egin genuen arratsaldean. Larunbatean udaletxekoak etorri ziren. Herriko haurrek egindako marrazkiak, lore sorta eta plaka bat ekarri zidaten. Eta igandean Bordara joan ginen bazkaltza, familiakoak. Jantoki guztiak Zorionak zuri kantatu ninduen. Jendeak esaten zuen: "honek ez ditu 100 urte".

10. Horren ongi zaude, Ursula!
 Lan asko egin naiz, baina osasun ona eman dit Jainkoak. Ongi nago, baina egunen batean atea zabalduko da eta akabo. Askotan, guztzera joaterakoan pentsatzen dut: "biharko hilda egongo naiz igual". Baina itzarri eta andria ongi! Hiato hernia daukat, baina bestela ezer Behin bakarrik eraman ninduten ospitalera, kanposantuan zerbaitek pikatu edo, eta hanka guztia hazi egin zitzaidanean.

11. Lehengo bizimodua edo egungoa, zein gogorrago?
 Orain ez dut lanik egiten eta jantaria ematen didate. Gaurkoa hobea! Nik pasatu ditudan kalbarioekin... Gurea lan egitea izan da. Baina estres gutxiago zegoen.
 +www.guaixe.eus